



BARREN  
TOKIKOM



# Handia izango da

# GOOKI

erreformak




## FATXADA BIRGAITZEAK

**S.A.T.E.**  
FATXADA AIREZTATUAK  
BIRGAITZE TRADIZIONALA  
BALKOIEN BIRGAITZEA



## ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK  
TERRAZA ETA ESTALKI LAUAK  
MANTENTZE LANAK  
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



## BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK  
LOKAL KOMERTZIALAK  
BULEGO ETA ENPRESAK  
SUKALDE ETA BAINUGELAK



## IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA  
IGOGAILU INSTALAZIOAK  
0 KOTA



## BULEGO TEKNIKOAK

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOAK  
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK  
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR  
943 74 42 23

SORALUZE  
943 12 57 41

BERGARA  
943 76 53 42

Argitaratzailea:



Ane Astiazaran

Itzultzailea

## Parentesiak



**"Udako parentesian galtzen da konpromisoa, militantzia, diskurtsoa(k), hizkuntza lehen lerroan jartzea"**

Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)



[youtube.com/@Elgoibarrenne](https://youtube.com/@Elgoibarrenne)

Orain gutxi lagun batek aipatu zidan parentesi pare bat tatuatzeko intentzioa zuela. Halakoetan egin ohi den galdera gogaikarriari erantzun zion esanez parentesiak tatuatzeko arrazoia ez zela parentesia bera, parentesi artekoa baizik, parentesi artekoa ez delako ezinbestekoa, baina bai garrantzitsua. Eta konturatu nintzen ezinbestekoak ez diren baina garrantzitsuak diren parentesiz josita dugula bizitza. Parentesiek matematikan eragiketen lehentasuna adierazten dute; testu batean argi geratu ez den hori azal dezakete parentesiek; parentesiak hartzen ditugu pentsatzeko, hausnartzeko; parentesiak hartzen ditugu harremanetan, lanean; parentesiak dira oporrak eta parentesia da uda. Gure errutina hausten dugu udan, eguraldi onak iluntzetan irteera bultzatzen gaitu, lehentasunak gure desiren arabera markatzen ditugu. Egun bereziak izaten dira, aste bereziak, epeltasuna, kontzertuak, ilunabarrak, jendea kanpora joaten da, egun pasa edo oporretan, kostara hurbiltzen gara eta herria zein hutsik nabari dugun aipatzen dugu ezagunekin topo egitean. Egunerokoan denbora luzeagoa da, umore onak lagutzen gaitu, aisialdiak, lan karga eta betebeharrak gutxitzen dira. Ez du lekurik presak, alferkeriak. Eta guk ez diegu lekurik egiten eguneroko borrokei.

Udako parentesian galtzen da, hain zuzen, konpromisoa, militantzia, gainontzeko borrokenganako atxikimendua, diskurtsoa(k) inguruan zabaltzea, hizkuntza lehen lerroan jartzea. Kostako herrietan turismo eredu masiboaren aurka altxa daiteke nor edo nor, eta festek irauten duten egunetan borrokak apaintzen ditu paretak, baina horiek ere ez al dira parentesiak parentesi artean? Nork begiratzen du udako eskaintza kulturala euskalduna, feminista edota antiarrazista den? Nork egin turnoak alboko herriko jaietan lagunak asteburupasa joan direnean? Nor azaldu asanbladara egun eguzkitsu batean? Bukatuko da parentesia eta parentesiaren balorazioa egingo da (eh, uda hau nahiko txukuna, ezta?), eta balorazio horretan ez diegu lekurik egingo eguneroko borrokei. Lasai egingo dugu aurrera gure parentesitik kanpoko bizitzarekin, errutina itzuliko da eta parentesi artekoa atzean geratuko da. (Parentesi artekoa ez delako ezinbestekoa, baina bai garrantzitsua).

*BARRE*Nek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

## Iñigo eta Mikel

Pena eman zidan eta ezin dut burutik kendu. Pena eta, egia esateko, nolabaiteko harrotasuna ere bai, aipatuko ditudan xehetasunak tarteko. Igande arratsalde zen eta bi mutil gazte arratsalde giro epela gozatzen euren arteko solas patxadatsuan. Maltzagara bidean ibaiko urak haitzen gaintetik pasatzean sortzen zuen musika gonbidapen atsegina zen harremanetarako.

Gazte haietatik bata, aspaldi neure ikasle izandakoak, ahots goraz agurtu ninduen. Berehala konturatu nintzen nor zen: jubilaria tarteko, nire azken kurtsoan, eskolan arreata handiz azalpenak entzuten zituen mutiko bizi hura. Debatik etortzen zen, beste asko bezala, Elgoibarren Batxilergo ikasketak burutu eta unibertsitatera begira azken bi ikasturteak egitera.

Bere solaskide eibartarra aurkeztu eta sarrerako beste ikamika batzuen ondoren euren bizimodu berri adieraztera eraman gintuen autuak. Biak lanean... edo lanetan, han edo hemen. Han eta hemen, hobeto esanda, *pluriempleo* batean bizi baitira. Ohiko ikasketa eta prestaketaz gain, hainbat ikastaro,

ziurtagiri, titulazio... lortuak, biak ala biak. Han eta hemen, lan prekarioetan, diru apurren truke eta finkotasunik gabe ibiliak eta dabilzanak. Besteen aisialdi eta oporraldietan tabernetan zerbitzari ere bai. Horieta batean elkar ezagutu eta hala elkartzen dira elkarren berri freskoa izateko.

Bizitzako proiektu bat egin nahirik, pertsona guztiok dugun eskubideari eutsiz. Hamazapi urte lehenago ilusioz beteta ikusten zuten etorkizuna korapilatsua ikusten dute. Urteak aurrera eta ametsetako proiektu haiek, hegoak moztu dizkioten txoriaren antzera, lurretik aireratu ezinik. Ahaztu bikotearekin bizi eta familia sortzea. Ezinezkoa da irabazten denarekin. Etxeko laguntzarik ez baduzu, jai daukazu. Bizitza osoan jo eta ke lan eginda ere zaila nor bere etxebizitza izatea. Handik eta hemendik harramazkatutako soldata apurraz gain hipoteka bat nor balioztatu ez baduzu, alokairuan edo gurasoen etxean bizi behar. Gero, ikusten dute eurek baino gutxiago saiatu diren asko hobeto moldatu direla, zorteak, etxeko laguntzak edo auskalo zerk erraztuta.

Hala ere, ez zen dena kexua. Bizitzak erakutsi die ahaleginez lortzen denak zenbat balio duen. Hemendik ez bada, handik. Nonbaitetik zabalduko zaio atea zintzo saiatsen denari. Ohartu dira euren bilaketa egoskorrean asko ikasi dutela gizarteaz, adiskidetasunaz, batzuen jatorritasunaz eta beste batzuen miseriak. Azken

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzko Aldeko Administrazioen Kontseilua</p>  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etxaldean Administrazioako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b><a href="mailto:rosap@telefonica.net">rosap@telefonica.net</a></b></p>	<p><b>Etxebizitza bat daukat eta logeletako batek patioa du irteera. Patioan konponketa batzuk egin behar dira eta jakin nahiko nuke nork ordaindu behar dituen gastuak.</b></p> <p>Patioek sortzen dituzte komunitateetan haserre gehien, izan daitezkeelako elementu pribatiboak, elementu komunak baina komunitateko etxe-jabe batek bakarrik edo batzuek bakarrik erabiltzekoak, edota izan daitezkeelako, baita ere, oso-osoan elementu komunak. Horregatik da ga-rrantzitsua erregistro-agiriak errepasatzea, jakiteko zein den bere berezko izatea. Haserre gehien bigarren kasuan sortzen dira: patioa elementu komuna denean, baina bakarrik etxejabe batek edo etxejabe jakin batzuek erabil dezaketenean. Kasu horretan, arazoak sortzen dira erabiltzaile esklusiboen eskubidea mugatzeko orduan; izan ere, ez dira beti jabetzen patioak askatasunez erabiltzeko ahalmenik ez dutela eta bestelako eraikuntzak egiten dituzte maiz patioetan edo estali eta beren etxebizitzekin edo lokalekin lotzen dituzte, gauzak gordetzeko erabiltzeko. Gogoan izan jabeak patioaren gainean erabiltzeko eskubidea baino ez duela.</p> <p><b>ONDORIOA. Elementu komuna izanik, eraikuntzako mantentze lanak eta konponketak jabeakideen komunitatearen kontura izango dira, betiere erabiltzaileak edo jabeak behar bezala erabiltzen baditu. Kasu horretan, deskribatutakoei dagozkien mantentze-lanak egin behar badira eta behar bezala erabiltzen bada, jabeakideen erkidegoaren kontura izango dira.</b></p> <p><b>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA</b> San Bartolome, 2</p>
---	--

batean, zailtasunak zailtasun, ondorio batera iritsi ginen elkarri agur egin aurretik. Pazientzia aktiboa behar da gaur eguneko bizi baldintzei duintasunez aurre egiteko.

Iñigo eta Mikel bezala, berdin izan zitezkeen Eneko eta Txomin edo Sonia eta Ander edo Maite eta Usua.

Gero, etxera helduta, irratiz zein telebistaz entzun dut langabeziak aspaldiko beherakadarik handiena izan duela. Langabeziak behera baina... zer egin dute diru gabeziak, etxegabeziak, proiektu gabeziak? Pertsonen duintasuna arriskuan jartzea da gabeziarik handiena.

**A. Ugarteburu**

### **Oharra**

Abuztuan ez dugu BARREN astekaria kaleratuko. Irailaren 1ean jasoko duzue ikasturte berriko lehenengoa. Ale horretan zerbait argitaratu nahi izanez gero, abuztuaren 30erako bidali behar da informazioa BARRENEKO erredakziora. Aita Agirre kulturguneko

hirugarren solairuan gaude. Telefonoa 943 744 112 eta e-posta [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus). Ordura arte, ondo pasa jaietan!

**BARREN**



# EAJk irabazi ditu Espainiako Kongresurako hauteskundeak Elgoibarren, eta Mendaron, EH Bildu izan da nagusi

Elgoibarren EAJk irabazi ditu Espainiako Kongresurako hauteskundeak 1.793 botorekin (botoen %31,10), eta alderdi bokatuen izaten jarraitzen du, baina duela lau urteko hauteskundeekin alderatuta, 515 boto galdu dituzte jeltzaleek. EH Bilduk, aldiz, gora egin du, eta 2019an baino 280 boto gehiago jaso dituzte. Bigarren bozkatuena izan da, eta EAJrekin zuen aldea nabarmen txikitu du. 1.757 boto eskuratu ditu (botoen %30,47); EAJk baino 36 boto gutxiago. PSOE izan da EAEn irabazle, eta Elgoibarren ere alderdi sozialistak gora egin du. 1.294 botorekin (botoen %22,44) hirugarrena izan da, eta orain dela lau urte baino 310 boto gehiago eskuratu ditu. Podemos izan zen laugarrena 2019an 724 botorekin, baina oraingoa Sumar

koalizioak ez du lortu emaitza hura mantentzea. 295 boto galdu ditu koalizio ezkertiarrek, eta 429 boto eskuratu ditu. PPK, berriz, gora egin du eta 63 boto gehiago jaso ditu; 343 guztira. Voxek 76 boto eskuratu ditu, 2019an baino zazpi gutxiago.

## Abstentzioa gora

2019an bi aldiz egin ziren Espainiako Gorteetarako bozak. Apirilaren 28ko hauteskundeen ondoren alderdiek ez zuten akordiorik lortu, eta bigarren ez eman behar izan zuten botoa herritarrek, azaroaren 10ean. Elgoibarren %25,23koa izan zen abstentzioa apirilean, eta bost puntu handiagoa, azaroan, %30,67koa. 2023koetan %31,84koa izan da, orain dela lau urte baino 1,17 handiagoa. Elgoibarren

## ELGOIBAR EMAITZAK

URTEA	HAUTESLE-ERROLDA	EMANDAKO BOTUAK	ZURIAK	BALIOGABEAK	ABSTENTZIOA
2019.04.28	8.681	6.491	22	62	%25,30
2019.11.10	8.654	6.000	21	28	%30,67
<b>2023</b>	<b>8.522</b>	<b>5.808</b>	<b>25</b>	<b>43</b>	<b>%31,84</b>



Elgoibar	2019		2023		2019		2023		2019		2023	
	2019	2023	2019	2023	2019	2023	2019	2023	2019	2023	2019	2023
KULTUR ETXEA	935	<b>344</b>	581	<b>412</b>	309	<b>284</b>	262	<b>104</b>	108	<b>63</b>	28	<b>13</b>
AITA AGIRRE *	----	<b>527</b>	----	<b>376</b>	----	<b>235</b>	----	<b>50</b>	----	<b>59</b>	----	<b>14</b>
JUBILATUAK *	199	----	89	----	71	----	27	----	16	----	8	----
ALTZOLA	24	<b>24</b>	47	<b>43</b>	14	<b>27</b>	19	<b>14</b>	7	<b>9</b>	2	<b>5</b>
P. MUGURUZA	421	<b>330</b>	269	<b>333</b>	216	<b>289</b>	183	<b>118</b>	57	<b>72</b>	14	<b>12</b>
SAN ROKE	332	<b>262</b>	203	<b>259</b>	103	<b>135</b>	70	<b>34</b>	35	<b>52</b>	8	<b>4</b>
URAZANDI	169	<b>135</b>	138	<b>162</b>	179	<b>206</b>	66	<b>48</b>	34	<b>43</b>	15	<b>16</b>
IMH	228	<b>171</b>	150	<b>172</b>	92	<b>115</b>	97	<b>61</b>	23	<b>45</b>	8	<b>12</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.308</b>	<b>1.793</b>	<b>1.477</b>	<b>1.757</b>	<b>984</b>	<b>1.294</b>	<b>724</b>	<b>429</b>	<b>280</b>	<b>343</b>	<b>83</b>	<b>76</b>

\* 2019an Kultur Etxeko Sotoan eta Jubilatuen Biltokian bozkatu zen eta 2023an Aita Agirre Kulturgunean.

**MENDAROKO EMAITZAK**

URTEA	HAUTESLE-ERROLDA	EMANDAKO BOTUAK	ZURIAK	BALIOGABEAK	ABSTENTZIOA
2019.04.28	1.412	1.037	2	4	%26,50
2019.11.10	1.499	945	3	3	%37
<b>2023</b>	<b>1.432</b>	<b>952</b>	<b>1</b>	<b>8</b>	<b>%33,51</b>



Mendaro

	2019	2023	2019	2023	2019	2023	2019	2023	2019	2023		
<b>BOTOAK</b>	379	<b>278</b>	218	<b>325</b>	168	<b>116</b>	141	<b>155</b>	27	<b>39</b>	6	<b>18</b>

8.522 lagun zeuden botoa ematera deituak domekan, eta 5.808k eman zuten.


Mendaron EH Bilduk irabazi ditu Espainiako Kongresurako hauteskundeak estreinakoz, eta Udal Hauteskundeetan erakutsitsako nagusitasuna berretsi du. 325 botorekin (botoen %34,42) alderdi bozkatuena izan da EH Bildu Mendaron, eta 2019an baino 107 boto gehiago jaso dituzte. Bigarren lekuan geratu da EAJ, 278 botorekin (botoen %29,44), eta duela lau urteko emaitzekin alderatuta, 101 boto galdu dituzte jeltzaleek. PSOEk 2019an baino 14 boto gehiago izan ditu, eta 155 botorekin hirugarren lekuan geratu ga (botoen %16,41). 2019an Podemos izan zen hirugarren, baina oraingoan Sumar koalizioak ez du berdindu orain dela lau urte Podemosek eskuratutako boto

kopurua. Alderdi moreak 168 boto jaso zituen, eta Sumar koalizio ezkertiarrek 116 jaso ditu. PP eta Vox alderdi eskuindarrek, bestalde, hamabina boto gehiago jaso dituzte 2019an baino. PPK 39 izan ditu eta Voxek, 18.


Abstentzioak behera egin du Mendaron. 2019an %37koa izan zen abstentzioa Mendaron, eta oraingoan %33,51koa. Mendaron 952 herritarrek eman zuten botoa domekan, hautesle-errola osatzen duten 1.432 herritarretatik.

Debabarrenari dagokionez, PSOE izan da alderdi bozkatuena 10.532 botorekin, eta 10.223rekin EH Bildu izan da bigarrena. Jaitsierarik handiena EAJk izan du eta duela lau urte alderdi bozkatuena izatetik, hirugarrena izatera pasatu da, 3.181 boto galduta. Jeltzaleek 8.492 boto jaso dituzte.

**Elgoibar**



**Mendaro**



EH Bildu EAJ-PNV PSOE Sumar PP VOX Aulki zuriak PACMA Elkarrekin CS



*Maala ingurua, urak hartuta.*

## 40 urte beteko dira sanbartolomeetan Elgoibar eta inguruak urak hartu zituenetik

✍️ Aina Argoitia / 📷 Roberto Andonegi

Abuztuaren 26an 40 urte beteko dira 1983ko uholdeetatik. Urte hartako sanbartolomeetan goian-behean egin zuen euria inguru honetan, eta Deba ibaiak gainezka egin zuen, elgoibartarrek Umeen Eguna ospatu behar zuten egunean. Egun hartan lanean jardun zen Txomin Mujika eguerdira arte, baina Kalegoen plazan ura pilatzen ari zela ikusita, hilabete aurretik erositako bideo-kamera hartu eta grabatzeari ekin zion. **BARRENERA** ekarri du egun hartako grabazioa, eta irudi haiekin eta Txomin Mujikaren orduko oroitzapenekin beste grabazio bat osatu dugu 40. urtemugaren karietara. Bideoa: [barren.eus](http://barren.eus).

**1** 983ko uztailean erosi zuen Txomin Mujikak estreinako bideo-kamera, baina ez zuen asko usteko hilabeteren buruan dokumentu historikoa grabatuko zuenik harekin. Historikoa baita **BARRENERA** ekarri digun bideoa, garai hartan ez baitzen gaur beste sakelako telefono eta kamera bazterretan, eta ur handiek Elgoibarren eta Mendaron eragin zuten triskantzako argazkiak erakutsi izan ditugun

arren, bideoan eman gabeak ginelako artean orduko irudirik. Mujikak kontatu du sekula ahaztuko ez duen eguna izan zela 1983ko abuztuaren 26a. Aurretik (1953an) eta gerora ere (1988) hartu zuen urak Elgoibar, eta 88ko uholdeek gainera, dezentez kalte handiagoak ere eragin zituzten, tartean bederatzita heriotza, baina duela 40 urtekoak jaietan harrapatu zuen herria, sanbartolomeetan.



**1983ko abuztuaren 23tik 26ra bitartean  
297 litro ur pilatu ziren Elgoibarren.  
1.200 milioi pezetako kalteak zenbatu  
zituzten, eta hondamendi eremu  
izendatu zuten Elgoibar.**

Euria goian-behean egin zuen sanbartolome haietan. Ondorioz, ekintza asko bertan behera laga behar izan zituzten. Kalejiran irten bai-ez ibili zen San Bartolome Egunean Erandioko udal musika banda esaterako, eta abiatzeaz batera hasi zuen euria, euri zaharra. Ez zuten aurrera egin. Udal korporazioak eta udal txistulari bandakoek, berriz, saltaka egin zituzten egun hartan udaletxetik parrokiara arteko metroak, mezetara iristeko, eta arratsaldean Kalegoen plazan jokatzekoa zen pilota partida ez zen jokatu. Bustitik esnatu zen Txiki Eguna ere, baina ekintzak gutxitu arren, jai-giroan jarraitu zuten herriko kuadrillek. Gau hartan, baina, Maalan gainezka egin zuen ibaiak. "Amaitu ziren berriketak".

Biharamunean lan-eguna zuten Kutxan eta eguerdira arte aritu zen lanean Mujika, Santa Ana kaleko bulegoan. Eguneko jarduna amaitzerako, baina, Deba ibaia gainezka egina zen Goiko-Errota parean eta Santa Ana kalean behera zetorren ura. "Saltaka joan nintzen elizako arkupeetaraino eta handik begira egon nintzaion urari. Hain nengoen harrituta ez nintzela jabetu kamera neukanik". Ura goraka, eta kalean behera, itsasoa. Kamera hartu eta Melitongo zubira arteko bidean ibili zen Txomin Mujika irudiak hartzen. "Plazan hartu nituen lehenengo irudiak, eta gero, estaziotik Armuetaneko harategia dagoen kalezulora joan nintzen, bigarren solairu batera igo, eta San Bartolome kalea grabatu nuen. Kale laua dela pentsa daiteke, baina ikustekoa zen urak zekarren indarra han behera. Plaza txikitik Loritoneko aldapara jo nuen gero eta handik Maalara. Ez nintzen joan San Pedroko etxeetaraino, baina uste dut hangoa desastrea izan zela; sekulako kalteak eragin zituen urak. Melitongo zubi pareraino iritsi nintzen ni. Maalako zubia gainetik pasatzen zuen urak, eta gaur udaltzainak dauden pare horretan zegoen zubia ere bai. Iriondo tabernako teilaperaino iristen zen

ura. Kutxak bi bulego zituen Elgoibarren orduan. Santa Ana kalekoan, metro beteko altuera hartu zuen urak, baina Foteroneko parean geneukan bulegoan hondamendia eragin zuen. Beldurgarria izan zen, eta ez dut ezer esango Mendarotaz. Han zer izan zen! [Mendaroko Garagartza auzoan 4,5 metroko altuera hartu zuen urak]". Kaleak urak hartuta zeudela, etxean urik gabe utzi zituzten kolpetik elgoibartarrak, eta argindarrak gabe eman zituzten orduak.

Ufalen ondorengo egunak ez ziren askoz hobeak izan. Lucio Beitia zen sasoi hartan Elgoibarko alkatea [Urte hartako maiatzean hartu zuen kargua] eta berak kontatua da hiru egun egin zituela botak erantzi gabe. Hondeamakinak inguratu zituzten handik eta hemendik, kalean pilatutako lokatza kentzeko eta auzolanean jardun ziren Elgoibarren ere lokalak hustu eta bazterrak garbitzen. "Akordatze hutsarekin orduko usaina etortzen zait neri. Hezurretaraino sartzen den usain txar hori", oroitu du Mujikak. Lau egunetan, 297 litro ur bota zuen metro koadroko Elgoibarren, eta kalte materialak handiak izan ziren. 24 familia etxerik gabe gelditu ziren eta 1.200 milioi pezetako kalteak zenbatu zituzten. Hondamendi eremu izendatu zuten Elgoibar.

1988koak beste kontu bat izan ziren. Uztailaren 19a zen, eta pare bat orduan 170 litro ur bota zuen Elgoibarren metro koadroko. "1983koetan euri asko egin zuen egunetan, baina 88koa kolperakoa izan zen. Akordatzen naiz eguzki galanta egin zuela egun hartan eta Kutxako lankideekin bazkaria egin genuela guk San Pedron. Gero, derrepentean, dena ilundu zen eta hura zen euria bota!. Buru gainean itsasoa izan eta derrepentean zulatuko balitz bezala izan zen. Menditik behera etorri zen ura eta aurrean harrapatu zuen dena eraman zuen aurrean. Ikaragarria izan zen", gogoratu du.

**Bost urte geroago, 1988an, berrito hartu zuen urak Elgoibar. Bi orduan 170 litro euri bota zuen metro koadroko, eta 83koan baino dezentez kalte handiagoak izan ziren, tartean bederatzi heriotza.**



*Merkatu plaza ondoko zubia gertutik (eskuinean) eta urrutiotik (ezkerrean). Urak estali egin zuen.*



*Ibaia eta errepide nagusia, dena bat.*



*Bizilagunak, etsita, ur handiei begira, Maalan.*



*Maalan, Txarriduna tabernaren bueltak, itsaso bihurtuta.*



*Lokatza eta denetariko hondakinak, kalean pilatuta.*



*Kalegoen plazan elizako arkupeetaraino iritsi zen ura.*



*Jaietako oholdza, uretan.*

# BI GONBIDATU BERRI JAIETAN



**Arantza Aginako eta Jon Lizarralde dira Elgoibarko erraldoi berriak. Haritz Dantza Taldearen 50. urteurrenaren harira ekarri dituzte, eta aurrerantzean, Asensio Altzola eta Katalina Ibarrekin batera osatuko dute Elgoibarko erraldoi eta buruhandien konpartsa.**

 Ainhoa Andonegi /  Asier Orbea

**E**rraldoien konpartsako erregea eta erregina zahartuta zeudela eta, bi erraldoi berritzeko asmoa zeukan Udalak azken urteetan. Haritz dantza taldeko kideak izan dira azken urteetan erraldoiak dantzan jartzearen arduradunak, eta aurten dantza taldearen 50. urteurrena ospatzen ari direnez, bi erraldoi berriak dantzariak izatea adostu zuten Udalarekin. Hasieran dantzari anonimoak izatea pentsatu zuten, baina azkenean erraldoi berriei Haritz dantza taldeko

bi dantzari historikoren aurpegia jartzea erabaki zuten. Hortaz, Jon Lizarralde eta Arantza Aginako izango dira konpartsako erraldoi berriak. Errosarioko Amaren Ezpata Dantzarako arropekin jantzi dituzte, hori delako Haritzek egiten dituen dantzen artean herrirako propio sortua. Udalak 11.660 euro inbertitu ditu bi erraldoi berriak sortzeko. Joan zen barikuan aurkeztu zituzten jendaurrean, eta jaietan irtengo dira berriro ere kalera.

## JON LIZARRALDE



*"Oso ondo egina dago eta nire burua errekonozitu dut lehenengo momentutik"*

"Erraldoi berrietako bati nire aurpegia jartzea pentsatu zutela esan zidatenean berehala esan nien niretzako ohore bat zela. Poza eman zidan, norberarekin akordatzea beti da pozgarria. Gustatu zait erraldoia. Oso ondo egina dago, eta nire burua errekonozitu dut lehenengo momentutik. Pena eman dit gurasoek ez dutela erraldoi hau ezagutu, baina anaiei esan nien Lizarralde bat ibiliko dela kalean zehar urte mordoska baten. Oso pozik nago, egia esanda. Oso politak dira bi erraldoiak, eta nire ustez, oso ondo daude. Ez dakit zer argazki erabili dituen, baina ni askotan konturatzen naiz dantzatzen ari naizenean ez dudala jakiten zein aurpegi jarri argazkietarako. Serio jarri, irribarre egin... tentsio handia izaten dugu, eta zaila izaten da une horietan barre txikiena ere egitea. Ahalegin fisiko betean egoten gara, kontzentratuta, eta serio. Serio daude bi erraldoiak, baina nik uste dut dela geu ere horrela egoten garelako dantzan ari garenean. Errosario kaleko ezpata dantzari errekonozimendua egiteko modu bat ere bada hau. 2009an berreskuratu genuen, Elgoibarko dantza bat da, eta arropak ere ikusgarriagoak dira. Sokadantza ere berezia da, San Bartolome egunean egiten da, eta hori ere egun handia izaten da guretzat, baina erraldoiak jantzeko askoz egokiago ikusten genuen dantza hau. Ezpataren detailea ere ikusgarri geratu da. Fijatu naiz eta bikain eginda dago. Mandoblea da, Toledotik ekarritako ezpata, eta benetan oso ondo egina dago".

## ARANTZA AGINAKO



*"Urduri nengoen erraldoia ikusteko, baina gustatu zait"*

"Bilera batean geundela irten zen erraldoi berrien gaia, eta bota zuten emakumezkoa ni izango nintzela, baina ez nuen pentsatu serio ari zirenik. Kulturatik deitu zidaten gero argazkiak eskatzeko, eta orduan konturatu nintzen benetan esan zutela. Niretzako ere ohore bat izan zen, baina aldi berean, beldur pixkat ere sentitu nuen, eta ez nion inori esan. Etxean ere ez zekiten ezer, beraz, denentzako sorpresa izan da. Aita Agirrera ekarri zituzten egunean semeari whatssapez iritsi zitzaion argazkia, eta orduan galdetu zidan ea dantzari emakumezkoa ni nintzen. Apur bat urduri nengoen erraldoia ikusteko, baina orain ikusi dudala, gustatu zait eta pozik nago. Hala ere, lehenengo begiratuan ez dut nire burua errekonozitu, oraindik gehiago begiratu behar diot eta asimilatu beharra daukat. Norbera beti desberdin ikusten da, eta tamaina horretan eta altuera horretan gainera... Oso serioa ikusten dut, agian horrelako aurpegi serioa jarriko dut dantzan nagoenean, eta besteek beti ikusten zaituzte beste modu batean. Baina bueno, orokorrean oso ondo daude biak. Errosario kaleko amaren ezpata dantza irudikatu behar genuela argi geneukan hasieratik, elgoibartarrak garelako eta dantza hori Elgoibarrerako bereziki sortua delako. Alde horretatik poza ematen du erraldoiak jantzi horiekin ikusteak. Ezpata bezain ondo egina dago buruzagia ere, egia esanda, detaile guztiak ditu oso zainduta. Oso politak daude biak".



# *“Ez ditut benetakoak ezagutzen; dena argazkietatik egin dut”*

**MIKEL IBARTZABAL** / Artisaua

✍️ Ainhoa Andonegi / 🗿 Asier Orbea

**Mikel Ibartzabal Beitia (Bergara, 1973) izan da Jon Lizarralde eta Arantza Aginakoren erraldoiak egin dituen artisaua. Jolas moduan hasi zuena lanbide bilakatu du, eta berak eginikoak dira Mauxi txikia eta buruhandi berriak ere. Taupada antzerki taldearentzako lanak ere eginak ditu.**

## **Nola hasi zinen artisau lan honetan?**

Esan dezaket ia bizi osoa daramadala panpinak egiten. Gazteak ginenean nire lagunek tabernan egiten zuten lan diru apur bat ateratzeko, eta nik sekula ez dut hori egin; ni beti panpinak egiten aritu naiz. Hankapalo talde bat sortu genuen oso gazte ginela, eta geuk sortu genituen panpin haiek. Nik uste dut orduan piztu zitzaidalda afizio hau. Inguruko herri askotan ibili ginen hankapalo haiekin; Elgoibarrera ere uste dut etorri ginela!. Afizio moduan hasi zena gaur egun lanbidea dut. Orain dela 25 bat urte Baskoniaren deia jaso nuen. Maskota egiteko eskatu zidaten, eta orduan hasi nintzen lana serio hartzen. Orduetik autonomia naiz, tailer bat daukat eta beti nago panpinez inguratuta.

## **Jon Lizarralde eta Arantza Aginako dantzariak egin dituzu orain, baina ez dira horiek izan Elgoibarrerako egindako lehenengo lanak.**

Taupada antzerki taldekoei egin nizkien aspaldi gomaespumazko buruhandi batzuk. Mauxi txikia ere nik egin nuen, eta Basajaun, Basandere, Tartalo eta Mari buruhandiak ere bai. Bergarako bi pertsonairen buruhandi txikiak ere eginak ditut. Mikel Etxaniz txarangakoak ezagutzen zituen, eta berak eskatu zidan Mauxi egiteko. Zain egon behar izan zuen luzaroan, garai hartan lanez lepo nembilelako,



baina itxaron zuen, eta pozik geratu ziren emaitzarekin.

## **Nolakoa izan da erraldoi dantzariak egiteko prozesua?**

Pare bat hilabeteko lana izan da. Erraldoi bakoitzari hilabete pasa eskaini diot. Argazkiak eman zizkidaten, eta hortik hasi nintzen ideia lantzen. Beirazko zuntza erabili dut, material oso gogorra delako, eta aldi berean, arina. Elgoibarko beste erraldoiak erabili ditut gorputzaren moldeak egiteko, eskatu zidatelako Elgoibarko erraldoien tamainara egiteko. Burua buztinarekin egin nuen, eta gero egin nion fibrazko moldea. Gero argazkiari begiratura, berain ezaugarriak ematen saiatu naiz. Nik ez ditut beraiek ezagutzen, dena argazkietatik egin dut. Barruko estruktura pago egurrez eginikoa da. 3,30 metro inguru dute alturan, eta 20 bat kilo. Arropak Bergarako jostun batek egin ditu, eta hori ere ez da erraza izan. Tamaina horretako botoiak edo txintzarriak topatzea esaterako, asko kostatu zaigu.

## **Zein panpin gehiago dira zuk eginikoak?**

Pirritx eta Porrotxenak, Ene Kantak proiektukoak, Wazemank eta Vaya Semanita programetakoak... Donostiako Olentzeroren karroza ere neuk egiten dut, eta beste atrezzo pila bat ere bai.



# BELAUSTEGI BASERRIA

— Jatetxea —

*Denborak atsedena hartu eta...  
zentzumenak esnatu egiten  
diren lekua*



## Egitarau ofizialeko kultur eskaintzari begiratu bat



Haritz Euskal Dantzari Taldekoek botako duten txupinazoarekin hasiko dira aurten sanbartolomeak Elgoibarren. Ofizialki, abuztuaren 23an hasiko dira, baina bezperatik jai-giroa izango da herrian, Gune Askekoek ere osatu dutelako egitaraua jaietarako, eta 22rako, erreka garbiketa, Gaztetxearen urtemugako ospakizuna eta trikiti poteoa lotu dituztelako. Jaietarako kamisetak ere egun horretan banatuko dituzte. Zazpi egunez, beraz, izango da zer ikusi eta zertaz gozatua herrian.

✍ Ainara Argoitia

Zazpi jai egun eta egitarau bete-betea. Horixe izango dira aurten sanbartolomeak. Orrialde hauetan jaietako egitarau ofizialeko kultur eskaintzaren handiena jaso dugu, baina gehiago ere izango da. Egitarau ofizialaren barruan, aipatzekoak dira hemen daudenez gain, Haritz Euskal Dantzari Taldekoek, Udal Txistulari Taldekoek, Erbuze konpartsakoek, herriko trikitilariak eta Mauxitxa txarangakoek egingo duten ekarpena sanbartolomeetako kultur eskaintza aberasteko. Ohikoak direlako ez ditugu laburpen honetara ekarri, baina horrexegatik beragatik, urtez urte sanbartolomeak eta

sanbartolomeak ez direnak girotzeko egiten duten ahaleginatik, merezi dute aipamen bat, ez baita haiek gabeko jairik Elgoibarren. Hala aipagarriak dira Mauxitxaren kalejirak, Baltzola eta lagunuen Baserritarren Eguneko trikiti kalejira, San Bartolome Eguneko sokadantza eta Jubilatuen Egunerako Haritz Euskal Dantzari Taldekoek Udal Txistulari Taldekoen eta herriko trikitilarien laguntzarekin antolatu duten dantza solteko lehiaketa, bai eta abuztuaren 23an Javier Elorza eta Pello Arrieta historialariak gidatuta Olasoko San Bartolome aintzinako elizara egingo den bisita ere.



## Larrain-dantza herrikoa

**Abuztuak 23, 12:30ean, Kalegoen plazan**

Plazan, bikoteka eta biribilean dantzaten da Larrain-dantza eta badira urte batzuk Elgoibarren dantza ikastaroa antolatu ohi duela herritar talde batek Lizarrako larrain-dantza ikasteko. Talde horretakoak eta nahi duen gainerako orok San Bartolome bezperaz izango du dantzatzeko aukera, Kalegoen plazan. Nork bere zapia eraman behar du etxetik.



## Ellie Jensen

**Abuztuak 23, 22:00, Kalegoen plazan**

Xabier Larrañaga Etxabe (gitarra eta ahotsa) eta Eneko Lersundi Perez (baxua) elgoibartarrek eta Eneko Bergaretxe Maguregi ermuarrak (bateria) osatzen dute taldea. Talde gaztea da, duela urte t'erdi bat sortu zutelako Ellie Jensen, baina album bat badute dagoeneko, *Sormenaren kondena*, martxoan argitaratu zutena plataforma digitaletan. Rocka, bluesa eta funk erritmoak uztartzen dituzte, eta taldean hiru izanda ere, zuzenekoetan sekulako indarra dute. Aitortu dute ilusioz gainezka daudela herrian eta En Tol Sarmientoren aurretik jotzeko, plaza bete lagunen aurrean.



## En Tol Sarmiento

**Abuztuak 23, Ellie Jensenen ondoren**

Arabako Errioxakoak dira eta bost lagunek osatzen dute gaur taldea. Kaotiko, La Polla Records, Kortatu, Piperrak, Boikot eta Reincidentes moduko taldeen eragina dute. Talde horien euskarazko bertsioak egiten hasi ziren eta gerora beren kantu propioak ere sortu zituzten. Zazpi disko argitaratuak dituzte eta euren azkeneko diskoa aurkezten ari dira orain, plazaz plaza: *Guretzat*. Eguneroko bizitzari eskainitako diskoa dela diote beren azken lanaz.



## Udal Musika Banda

**Abuztuak 24, soka-dantzaren ondo**

Juanma Saezek zuzenduko du Udal Musika Banda San Bartolome eguneko kontzertuan eta zortzi kantu joko dituzte. Peña eta Goñiren *Donostia*, Robert Sheldonen *Chanteys*, Tomas Aragüesek moldatutako lau euskal kantu, Juanma Saez bandakideak prestatutako Hego Arabako Dantzak eta Tomas Aragüesek moldatutako Eusko abendaren ereserkia.

## Ipar zirkua ikuskizuna

**Abuztuak 24, 19:00etan, Maalan**

Gala formatuko zirku ikuskizuna da Trotamundos eta Malas Compañías antzerki konpainiek Elgoibarrera dakarten *Ipar Zirkua*. Bost artistak parte hartzen dute ikuskizunean, eta maila tekniko handiko akrobaziak egin eta diziplina askotarikoak lantzen dituzte. Familia osoarentzako ikuskizuna da.



## Tapia eta Leturia

**Abuztuak 24, 23:00etan,  
Kalegoen plazan**

Ez dute aurkezpen handirik behar. 1984an elkartu ziren estreinakoz eta geroztik makina bat plaza egin dituzte elkarrekin. Dozena bat disko argitaratu dituzte urte guzti hauetan elkarrekin eta beste hainbat musikarirekin ere kolaboratu dute. Bakarka ere egin dute bidea, eta orain, elkarrekin datoz berriro, plazak dantzan jartzera. Tikitixa garaikidearen ordezkariatzat dituzte.



## Trakamatraka

**Abuztuak 25, 17:30ean, Bolatokian**

Jon Urrutia musikariak sortu zuen Trakamatraka, 2017an, eta dibertsioa, irudimena eta sormena lantzen ditu bere ikuskizunean. Erabilitako materialekin musika tresnak sortzen ditu Urrutiak, eta musika eta umorea batzen dituen antzerki ukituko ikuskizunarekin bizi garen munduari buruz gogoeta eginaraziko du. Familia osoarentzako ikuskizuna da.

## Rockalean

**Abuztuak 25, 19:30ean, Kalegoen plazatik**

2004an Astigarragan sortu zuten Zozongó! konpainiaren proiektuetako bat da Rockalean. Musika munduan eskarmentu handia duten bost lagunek osatzen dute Rockalean taldea, eta rockaren eta poparen historiako talde handiak bertsionatzen dituzte. Javier Area eta Odei Astibia (bateria jotzaileak), Jon Viejo (sousaphonea), Mikel Sukunza (gitarra) eta L.M. Moreno (ahotsa eta haizezko instrumentuak) dira taldekideak.



## Santiagoko deabruak

**Abuztuak 25, 22:30ean, Kalegoen plazatik**

Irabazi asmorik gabeko kultur elkarte da Santiagoko deabruak eta ikuskizun berri batekin datoz Elgoibarrera. Udako solstizioa joan zen, baina suaren magiak bete-bete harrapatzen ditu udako jai asko, eta horregatik, *Trumoiak* izeneko ikuskizuna sortu dute. Horixe da hain zuzen ere Elgoibarrera ekarriko dutena. Musika, koloretako bengalak, karretillak, sumendien piroteknika delakoarekin sortutako su-jauziak, zarata, eta kea dira ikuskizun honen osagai nagusiak, baina beren orrialdean diote lasai gerturatzeko ikuskizunera eta hartzeko parte, segurtasuna bermatuta dagoela eta.





## Bertso saioa

**Abuztuak 26, 13:00ean, Kalebarrenen**

Baserritarren Egunean usadio bihurtu da bertsolarien saioa. Sagardo txapelketako sari banaketaren ondoren izan ohi da saio hori, Kalebarren plazan. Hiru bertsolari jarriko dituzte aurten kantuan: Millan Telleria (Albiztur, 1957), Uxue Alberdi (Elgoibar, 1984) eta German Meabebasterretxea (Elgoibar, 1970).

## 'Nire sudur punta'

**Abuztuak 26, 18:30ean, Maalan**

Zirku garaikideko ikuskizuna da *Nire sudur punta*, Kolektivo Konikak sortutakoa, eta bertan, akrobazien, mugimenduaren eta dantzaren, ahotsaren eta musikaren bidez, giza harremani buruz hizketan jardungo dira sei emakume: Candela Casas, Elisa Strabili, Greta Mari, Mari-Cel Borrás, Michela Fiorani eta Shakti Olaizola. Umore dosi handiko ikuskizuna da, 50 bat minutukoa.



## Brilet

**Abuztuak 26, 22:00etan,  
Kalegoen plazan**

2022ko irailean sortutako taldea da Brilet, Asier Olabarrieta, Jesus Jimenez eta Nerea Gil elgoibartarrek osatutakoa. Pop-rocka eta musika elektronikoa egiten dituzte, eta ezagunak dira gure artean, besteak beste, EME Elgoibarko Musikariaren Egunean ere jotakoak direlako.

## Neomak

**Abuztuak 26, Brilleten ondoren**

Kepa Junkeraren Sorginak panderojole taldearen inguruan ibilitakoak dira taldekideetako asko, harekin munduan barrena ibilitakoak, baina Junkerari ondoezak eman zionean haietako zazpi Neomak sortu zuten, 2019an. Folk taldea da oinarrian. Panderoa eta perkusioa hartu eta tradizioetik abangoardirako saltoa egiten dute, bai musikalki eta baita estetikoki ere.



## Zirika Zirkus

**Abuztuak 27, 17:30ean, Maalan**

Zirika Zirkusek *Aurkitu gabeko altxorra* ikuskizuna ekarriko du Elgoibarrera ere [santanetan Mendaron izan ziren]. Antzerkia, zirkua eta umorea. Hiru osagai horiek batzen ditu ikuskizunak. Niko, protagonista, lo gelditu da Augusta Robusta pirataren liburua irakurtzen ari dela eta lo dagoela ametsetako pertsonaiekin topo egingo du.



## Erromeria Gabezinekin

**Uztailak 27, 21:30ean, Maalako parkean**

Nafarroako musikariz osatutako erromeria taldea da Gabezin. Nahiz eta talde gaztea izan, 2008tik daramate Euskal Herri guztiko herri zein auzoetako jaiak alaitzen. Zazpi kide dira gaur egun, eta baxua, gitarra, bateria, akordeoia, tronpeta, tronboia eta ahotsek osatzen dute. 2020an *Korapiloak* diskoa kaleratu zuten, estilo askotariko kantuekin: balsak, kalejirak, fandangoak, reggae edo ska doinuak... Urte horretan bertan Goizuetako Euskaraldirako ere sortu zuten kantua: *Herri bat oihuka*.





## Oihan Vega

**Abuztuak 28, 18:00-20:00, Maalan**

Telebistako aurkezle eta irratiko esatari izan delako ezagutuko duzue askok, baina DJ bezala ere ezaguna da Euskal Herrian. ETBk sustatutako *Diskofesta* ikuskizunarekin hasi zuen ibilbidea eta konta ezin beste plazatan aritu izan da azkeneko hamabost bat urtean, baita Elgoibarren bertan ere.

## Muzak

**Abuztuak 28, 22:00etan,  
Kalegoen plazan**

Ruben Irigoienek eta Joanes Iñurrietak sortu zuten taldea, Eibarko Legarreko lokaletan. 2020an, Elgoibarrera mugitu ziren eta han Aitor Sagarmendi batu zen proiektura baxu jotzaile moduan. Post rocketik abiatuta, rock progresiboa, popa eta metala ere egiten dute.



## Su Ta Gar

**Abuztuak 28, 23:00etan,  
Kalegoen plazan**

Ez dute aurkezpenik behar gure bueltan. 80ko hamarkadaren bukaeran sortu zuten taldea, Eibarren, eta euskarazko heavy metalaren aitzindariak direla esan ohi da. *Jaiotze basatia* eta *Hortzak estuturik* aurreneko bi diskoak taldearen estiloko esanguratsuenen artean daude, eta taldea bera azken bi hamarkadetako arrakastatsuenen artean dago. Urteekin taldearen estiloa eraldatzen joan da, baina heavy izaerari eutsi diote beti.





# Meka

Lanbide Eskola

*Ondo pasa San Bartolome jaixetan!*

**SAN BARTOLOME JAIETAKO  
IRUDIAK EGUNERO**

**[www.barren.eus](http://www.barren.eus)**



## || Jaietan ere aisia hezitzailea, Atxutxiamaikarekin



**J**aietako antolatzaileen artean eragile berri bat izango da aurten: Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika Aisialdi Taldea. Hainbat eta hainbat urtetan jaietako eragile izan den Zuhaitz aisialdi taldearen lekukoa hartuko du, eta Umeen eta Gazteen egunetako hainbat ekintza antolatzeko ardura hartuko du bere gain. Helburuak aisialdi taldeak bere dituenak izango dira jaietarako ere, eta aisia hezitzailearen barruan kokatuko dituzte ekintzak. Beraien balio eta helburuak aplikatzeko, hainbat aldaketa sartu dituzte egitarauan, erabiltzaileekin pentsatuz.

### Umeen Eguna

Bereziki, 0-5 adin tarteko umeentzako ekintza falta igarri dute egitarauan Atxutxiamaikakoek eta hutsune hori beteko dute. Beraz, LHko ikasleentzako tailerrez gain, HHko umeentzakoak ere egongo dira aurten. Umeentzako bazkariari ere eutsi egingo diote, eta herriko eragileen arteko elkarlana sustatzeko Lizagar Saragotokiak egindako magdalenak emango dituzte postrerako eta sagar zukua ere eskainiko dute. Arratsaldean, bestalde, dantza jaia egingo dute Bolatokian, eta etxeko txikiak kantatzeko eta dantzatzeko aukera izango dute. Faltako diren ekintzen artean, baina, Zuhaitz aisialdi taldeak urteetan antolatu duen marrazki lehiaketa aipatu behar da. Arduradunek esandakoaren arabera, lehiaketa kutsua duten ekintzak kendu nahi izan dituzte, umeen gozamenari lehentasuna emateko. Beraien esanetan, urtean zehar ere umeek badituzte lehiatzeko beste hamaika aukera, eta uste dute

jaietan ondo pasatzea izan behar dela helburua.

Umeen Egunean aipatu beharreko beste aldaketa bat ere badago, izan ere, azken urteetan finkatuta zegoen umeentzako entzerrorik ez da egongo aurten. Udaleko Kultura Saileratik azaldu dutenez, Animalien Babeserako lege berria indarrean sartu da, eta zezentxoak plazara ateratzea debekatu egin dute. Poniak oraindik atera daitezke, baina Udalak erabaki du aurten poniak ere ez ateratzea.

### Gazteen Eguna

Gazteen Egunean goitibehera eta drift trike jaitsiera antolatzeko ardura eman diote Atxutxiamaikari, eta ekitaldia prestatzeko parte hartzen duten hainbat lagunekin bildu dira. Elkarlanean prestatu dituzte jaitsierarako baldintzak, eta finean, azken urteetakoa mantendu badute ere, aldaketa batzuk sartu dituzte. Goitibehera jaitsieran azkarrenak irabaziko du, baina sari berezien artean goitibehera jendetsuena saritzea erabaki dute. Orain arte originaltasuna saritzen zuten, baina aurten jende gehien sartzeko ahalmena duen goitibeherak eramango du saria.

Drift trike jaitsierari, bestalde, lehiaketa kutsua kendu diote, eta ikuskizun bilakatu dute. Partaideen esanetan motzegia izaten zen ekitaldi hori, helburua ahalik eta denbora gutxienean jaitea zelako, eta aurten, ikuskizuna luzatzea erabaki dute. Hortaz, drift trike bakoitzak show moduko bat egin beharko du bere jaitsieran, eta partaide bakoitzak 50 euro jasoko ditu parte hartzeagatik.





# dentalaldaz

horts klinikak · clínicas dentales

**943 366 377**

[www.dentalaldaz.com](http://www.dentalaldaz.com)

Elgoibar  
San Bartolome, 22

**SANBAROLOMEETAN  
ETA UDA HONETAN ZURE  
IRRIBARREAK LILURATU  
GAITZALA!**

**%50eko  
deskontua  
hortzak zuritzeko  
tratamenduan!**

**Saio bakar  
batean zure  
hortzak txuritzeak  
badu prezioal  
335 €\***

\* Abuztura arteko balioa du eskaintza honek.





**Elgoibar BHI**

[www.elgoibarbhi.eus](http://www.elgoibarbhi.eus)

Elgoibar BHI

Arregitorre 2

Tel.: 943 899 316

E-posta: [013431aa@hezkuntza.net](mailto:013431aa@hezkuntza.net)



**Jai zoriontsuak!**



**MAPFRE 943 740 582**

San Frantzisko, 40, behea - [patxiza@mapfre.com](mailto:patxiza@mapfre.com)

**Ondo pasa jaietan!**



**AUTO ETA MOTORREN ASEGURUAK ■ ETXE-ASEGURUAK  
OSASUN-ASEGURUAK ■ ERRETIRO-ASEGURUAK ■ FAMILIAREN BABESA**



**Softlan**

Albitxuri Industrialdea, 3i

943 748 105

[info@softlan.biz](mailto:info@softlan.biz) - <https://eu.softlan.eus/>

**Gestio programetan  
gaude espezializatuak.  
Ticket Bai-rako, prestatuak.**

**Ondo pasa jaietan!**

**ONDO PASA  
JAIXAK!!**



elgoibarko  
herri eskola





## Ez da inor falta aurtengo kartelean

**H**amazpiki kartel aurkeztu dituzte San Bartolome jaietako egitarauaren azaleko irudi lehiaketara, eta epaimahaiak Abel Florido Gandulloren (Bartzelona, 1963) *Mogollón* izeneko kartela aukeratu du. Honako hauek osatu dute epaimahaia: Maialen Gurrutxaga Elgoibarko alkateak, Andrea Arriola zinegotziak, Ongarri argazkilaritako Jesus Mari Sarasuak eta Gemma Monreal eta Emi Nogales margolariak. Irabazleak 800 euroko saria jasoko du.

Umeen marrazki lehiaketara, bestalde, bederatzi lan aurkeztu dituzte, eta hauek izan dira sarituak: Leire Eguren Torquemada (12 urte), Sare Meabebasterretxea Sanz (12 urte), Ibon Baskaran Beristain (11 urte), Oihane Meabebasterretxea Sanz (9 urte), Libe Jurado Bastida (8 urte), eta Ibai Meabebasterretxea Sanz (6 urte).

Sari banaketa abuztuaren 23an egingo dute, 20:30ean, udaletxeko udalbatza aretoan.

## Abuztuak **22**, martitzena

**18:30** Futbol txupinazoa:  
Haundi gizezkoak eta Zumaia koren arteko  
partida, Mintxetan.

## Abuztuak **23**, eguaztena

### **San Bartolome bezpera**

**09:00** Txirrindulari lasterketa: Etxaniz  
Memoriala. Kalegoen plazatik. Helmuga,  
Pedro Migel Urruzuno kalean, 12:00etan.  
Sari banaketa, 12:30ean, Kalegoen plazan.

**10:00** Bisita gidatua. Olasoko San Bartolome  
elizara. Pello Arrieta eta Javier Elorza  
historialariek in.

**10:30** Jaien hasiera, San Lazaro egoitzan  
eta Eguneko Zentroan. Adinekoei zapia  
jarriko diete.

**11:30** Iaz jaiotako umeei ongi-etorria. Aita  
Agirre kulturgunean.

**12:30** Larrain dantza herrikoia. Kalegoen  
plazan.

**13:00** Txupinazoa eta kanpai-jotzea. Aurten,  
Haritz Euskal Dantzari taldeak botako du  
txupinazoa, 50 urte bete dituelako.

**Segidan**, Mautitxa Txarangaren kalejira.



Masaje zentrua  
*Idoia Garcia*

Trenbide kalea, 19 - Elgoibar - 943 531 221  
Ondo pasa jaietan!

*Gabi*  
jatentza

**943 741 230**

Sarbartolomeetarako  
egin zure erreserba!  
Ez geratu lekurik gabe.

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11  
943 741 487  
[bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

**Merkatari txikiak babesteak  
herriarekiko konpromisoa erakusten du!  
Komertzio txikia bizirik!**

**Ondo pasatu jaietan!**

**ZATOZ UDAKO  
GURE KATALOGOAREN BILA!**

- Hozkailuak ● Labeak
- Garbigailuak ● Indukzioa
- Mikrouhin-labeak
- Lehorgailuak ● Aire egokitu aparailuak



**16:00-20:30** Haur eta nerabeentzako parkea, Aita Agirre plazan. Eurria bada, Sigman.

**16:30** Sorpresa. Jubilatuen Biltokian.

**17:30-19:00** Erraldoi, buruhandi eta zezen zikleten kalejira, Elgoibarko, Guardiako eta Iruñeko dultzaineroekin. Lekueder buruhandirik gabeko gunea izango da.

**19:00** Mauxitxa Txarangaren kalejira, danborradarekin batera. Kalebarren plazatik.

**20:00** Ignazio Bereziartuaren salbea. Parrokiako abesbatzak kantatua, San Bartolome parrokiari. Udalbatza parrokiari joango da, Udal Txistulari Taldeak lagunduta.

**Jarraian**, jaietako kartel lehiaketako sari banaketa, udaletxeko pleno aretoan.

**22:00** Kontzertua: Ellie Jensen. Kalegoen plazan.


**Segidan**, Kontzertua: En Tol Sarmiento (ETS), Kalegoen plazan.

**Gizonezkoen ile-apaindegia**  
**JOSE ANTONIO** Errosario kalea, 30  
943 741 492

Egindako zerbitzu bakoitzak erabat betetzen ditu **HIGIENE-ARAUDIAREN** eskakizunak.

Ilea zaintzeko **KERASTASE** eta **L'OREAL** tratamenduak.

Abuztuko ordutegiak:  
[www.peluqueriajoseantonio.com](http://www.peluqueriajoseantonio.com)



**ETXEBERRIA**  
EHORZKETA-BEILATOKIA



**943 741 327 (24 orduz)**

**635 756 295**

**629 635 203**

Santa Klara, 16 - Elgoibar  
[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)  
[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)

Kutzak, trasladoak eta koroak.  
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

## Abuztuak 24, eguena

### San Bartolome Eguna

**09:00** Iruñeko eta Guardiako dultzaineroen diana.

**09:45** Udal Txistulari taldearen diana.

**10:00** Udal Musika Bandaren kalejira.

**10:45** Herriko zaindariaren prozesioa. Udalbatzak parte hartuko du, Udal Musika Bandarekin eta Udal Txistulari Taldearekin batera.

**11:00** Meza Nagusia. San Bartolome parrokian. Parrokiako abesbatzak, Udal Txistulari Taldeak eta Haritz EDT-k hartuko dute parte.

**Jarraian**, soka-dantza. Haritz EDT eta Udal Txistulari taldearen eskutik.

1983-2023  
40 urtez zuekin



# IRIONDO KIROLAK

MENDIRAKO eta KALERAKO MODA  
ELGOIBAR

**Eskerrik asko, bezero!**

## Osasun gida

RPS 183/12  
**Uzuri**  
optika audio  
Elgoibar  
943 740 359  
Deba  
943 192 192

**NATUR HOUSE**  
Ainara Iriondo Ansola  
GIZA ELKADURAN ETA  
DIETETIKAN DYPLOMATUA  
RPS 203/16



Tortibio Etxebarria, 22  
Elbar  
**677 551 850**

**fisio&mas**  
Fisioterapia aurreratua eta  
Kirol Berregokitzea  
RPS 177/18



Trenbide kalea, 13  
943 740 191 / 667 953 698  
www.fisio-mas.com

**leku edero**  
hortz klinika  
RPS 171/12  
Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar  
**943 530 053**

**federópticos**  
**ikus**  
RPS 65/07  
San Bartolome, 10  
Tel.: 943 743 734

RPS 271/12  
**ainhoa**  
fisioterapia



Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar  
943 531 953  
669 565 745 

**aldaz**  
hortz klinikak  
RPS233/13  
**943 366 377**  
San Bartolome, 22  
20870 Elgoibar





**Ondoren,** Udal Musika Bandaren kontzertua. Kalegoen plazan, herriko dultzaineroek lagunduta.

**16:00-20:00** Haur eta nerabeentzako parkea, Aita Agirre plazan. Euria bada, Sigman.

**16:00-20:00** Pedaldun kart-ak. Kalegoen plazan.

**17:30-19:00** Erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira, Elgoibarko, Guardiako eta Iruñeko dultzaineroekin batera. Lekueder buruhandirik gabeko gunea.

**18:00** Profesional mailako pilota partidak. Ikastolako frontoian.

**19:00** Kale antzerkia: *Ipar zirkua*. Maalan.

**23:00** Tapia eta Leturia taldearen kontzertua. Kalegoen plazan.

Abuztuak **25**, barikua

**Txiki Eguna** 

**08:00** Diana, Mauxitxa txaranga eta herriko dultzaineroekin.

**Jarraian**, sokamuturra, Arnoren zezenekin. Maalako parkean hasiko da.

**Ondoren**, salda eta txorizoa banatuko dute herriko elkarteek: Karakate, Ego-Toki, Zubi Ondo, Herri Gain, Goiko Errota, Gure Bide eta Batzokiak.

**12:00-14:00 eta 16:00-19:00** Uretako txirrista erraldoia. Aita Agirren.

**12:30** Mauxitxa txarangaren kalejira.



**Ondo pasa  
sanbartolomeetan!**



**PSE-EE  
PSOE**







**13:00-16:00** Fotokola: "Jaietan ere, indarkeria matxistari, ez!". Kalebarren plazan.

**17:30** Trakamatraka ikuskizuna, haurrentzat. Bolatokiko parkean.

**18:00** Profesional mailako pilota jaialdia. Ikastolako frontoian.

**19:30** Rockalean. Kalegoen plazan hasita.

**22:30** Santiagoko deabruak. Kalegoen plazan hasita.

**LAGUNAK**  
colchoneria textil bogor

San Roke kalea, 20 - Elgoibar  
943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

**Ondo pasa jaietan!**

**KIMA**  
KIMABIOESTETIKA

Ondo pasa jaietan!  
Hizordua hartzeko:  
646 563 706

Urazandi 9, behea - Elgoibar / Lersundi 1-3 - Deba [www.kimabioestetika.koibox.sie](http://www.kimabioestetika.koibox.sie)

Jon Aranao  
Guillermo Torres

**Elgoibar  
Albaitaritzza**

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
Astikohatetik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
Larunbata: 11:00 - 13:00

Ileapaindegi zerbitzua daukagu.  
Deitu ordua hartzeko.

**HAIR'S** Ileapaindegia  
San Bartolome, 6 behea  
**943 531 279**

**ASTEARTETIK OSTIRALERA:**  
09:00 - 12:30  
15:00 - 19:00

**LARUNBATETAN:**  
09:00 - 14:00

**ASTEARTEETAN  
JUBILATUEN EGUNA**

Orraztu Moztu  
**12€ 12€**  
Garbitu, moztu  
eta orraztu  
**24€**

**Ondo pasa jaietan!**

*Elgoibarren  
bizi. erosi  
herriak irabazi*



TXARTELAREKIN ORDAINDUTA  
10€-KO HOBARI SARIAK  
LORTU AHALKO DITUZU.  
3000€ ZOZKATUKO DITUGU  
URTEA AMAITU BITARTEAN.

*Ondo pasa jaietan!*



## Abuztuak 26, zapatua

### **Baserritarren Eguna**

**09:30** Ganadu lehiaketan parte hartuko duten ganaduzaleei harrera. Haritz EDT-k eta Udal Txistulari Taldeak egingo diete, Kalebarren plazan.

**Jarraian**, Baltzola eta lagunak trikitilarien kalejira.

**10:30** Gipuzkoako Limousin Ganadu Txapelketa. Sigmako probalekuan.

**11:00** Sagardo txapelketa eta dastatzea. Sallobente elkarteak antolatuta, Kalegoen plazan.

**11:00** Gazta txapelketa eta salmenta. Kalamua elkarteak antolatuta, Kalebarren plazan.

**12:00** Ganadu txapelketako sari banaketa. Sigmako probalekuan.







**TXILLARRE**  
eko denda

**ETXERA**  
ERAMATEKO  
ZERBITZUA





San Bartolome kalea, 29, behea-Elgoibar  
**635 008 496**

- ❖ Baserriko produktu ekologikoak.
- ❖ Garaian garaiko otarrak.
- ❖ Aukera zabala elikagai ekologikoetan.
- ❖ Kosmetika biologikoa.
- ❖ Banaketak: Ermua, Eibar, Elgoibar, Mendaro.
- ❖ Ashtanga yoga klaseak eta hipopresibo klaseak astero.
- ❖ Fisioterapia, osteopatia eta nutrigenomika kontsultak.

[p.ekologikoak@gmail.com](mailto:p.ekologikoak@gmail.com)






**Maria Urizar**  
ilepoindegia • Peluqueria

**Ondo pasa jaietan!**

San Bartolome kalea 15  
Tel.: 943 74 99 89  
ELGOIBAR Gipuzkoa







**PINTURA ETA DEKORAZIOA**  
**CORDON VILARCHAO**

[cordonvilarchao@telefonica.net](mailto:cordonvilarchao@telefonica.net)  
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26

**943 740 570 / 636 986 162**



**ASESORIA GOAR**

**KONTABILITATEA  
AHOLKULARITZA FISKALA  
ASESORIA LABORALA**

San Bartolome, 2 behea - Elgoibar  
[asesoria@asesoriagoar.com](mailto:asesoria@asesoriagoar.com)

Tel: 943 742 674 / 943 740 234  
Faxa: 943 742 129

**13:00** Sagardo lehiaketako sari banaketa. Kalegoen plazan.

**13:00** Bertsolariak: Uxue Alberdi, Millan Telleria eta German Meabebasterretxea. Kalebarren plazan.

**14:00** Gazta Txapelketako sari banaketa. Kalebarren plazan.

**17:00** Baltzola eta lagunak trikitilarien kalejira.

**18:00** Mintxeta memoriale: Sanbartolomeetako harri-jasotze txapelketa, Kalegoen plazan. Euria bada, ikastolan.

**18:30** Nire sudur punta. Kolektibo konika konpainiak aurkeztuko du. Maalako parkean.

**22:00** Kontzertua: Brilet musika taldea. Kalegoen plazan.

**Segidan**, Neomak musika taldearen kontzertua. Kalegoen plazan.

Abuztuak **27**, domeka**Jubilatuen Eguna** **08:00** Diana, herriko dultzaineroekin.**Jarraian**, sokamuturra, Arnoren zezenekin. King-Kong-en hasita.**12:00** Eusko Label hegaluze parrillada. Atabal Danborrada Elkarteak antolatuta, Kalebarren plazan.**12:30** Jubilatuentzako meza. San Bartolome parrokian.**14:30** Jubilatuen bazkaria. Olaizaga kiroldegian. Basajaun musika taldeak girotuko du.**19:00** Dantza Solteko Txapelketa. Haritz EDT-k antolatuta, Udal Txistulari Taldearen eta trikitilarien laguntzarekin.**Umeen Eguna** **12:00 - 14:30** Umeentzako jolasgunea. 0-5 urte bitartekoentzat. Bolatokiko parkean.**12:30 - 14:00** Umeentzako eskulanak. 6 urtetik aurrerakoentzat. Kalegoen plazan.**14:00** Haurrentzako herri bazkaria. LH1etik aurrerako umeentzat. Elizako arkupeetan. Bakoitzak bere ogitartekoa eraman beharko du. Freskagarriak eta postrea bertan banatuko dizkiete.**Jarraian**, umeentzako dantza jaia. Bolatokiko parkean.**17:30** Zirika Zirkusen *Aurkitu gabeko altxorra* ikuskizuna, Maalako parkean.**Jarraian**, erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira, Mauxitxa txarangarekin.**21:30** Erromeria: Gabezin taldearekin. Maalan.


IDAZMAKINEN SALMENTA  
 ETA KONPONKETA  
 MULTIKOPISTAK  
 FOTOKOPIAGAILUAK  
 ERLOJU INDUSTRIALAK  
 MARRAZKETA MATERIALA  
 INFORMATIKA  
 FAXA

**MEKANOSA**  
Errosario, 27-Elgoibar  
**943 740 284**

AHOLKULARITZA

**BIKAIN** 

ASESORIA

**943 744 557**  
[bikain@bikainasesoria.com](mailto:bikain@bikainasesoria.com)

- Zerga-aholkularitza
- Lan-aholkularitza
- Kontabilitate aholkularitza

Antonio Arrillaga, 4 behea  
20780 ELGOIBAR

GYS SPORT **CASA** ELGOIBAR

**ASTIGARRAGA**

Errosario, 18  
**943 743 268**

**Abuztuan, goizez, zabalik,  
9:00etatik 13:00etara*****Ondo pasa jaietan!***

**Nº1**  
en zapatillos

Errosario, 21, behea  
**943 744 386**



Abuztuak **28**, astelehena

**Nerabeen eta Gazteen Eguna** ■■■

**08:00** Diana, herriko dultzaineroekin.

**Jarraian**, sokamuturra, Arnoren zezenekin. Maalako parkean hasiko da.

**Ondoren**, salda eta txorizoa banatuko dute herriko elkarteek: Karakate, Ego-Toki, Zubi Ondo, Herri Gain, Goiko Errota, Gure Bide eta Batzokiak.

**12:00** Goitibehera jaitsiera Azkuen. Izena emateko: [elgoibar.eus](http://elgoibar.eus) edo egunean bertan, irteeran.

**Segidan**, drift trike erakustaldia. Izenematea [elgoibar.eus](http://elgoibar.eus) atarian, abuztuaren 15erako.

**18:00** Oihan Vegaren ikuskizuna. Maalako parkean.

**19:00** Herri kirolen taldekako triatloia. Aita Agirre plazan.

**22:00** Kontzertua: Muzak. Kalegoen plazan.

**Jarraian**, kontzertua: Su ta Gar. Kalegoen plazan.

**Ondoren**, Mauxitxa txaranga.

Abuztuak **29**, martitzena

**18:30** Futbol txupinazoa: Haundi emakumezkoak eta Arratiaren arteko partida, Mintxetan. Liga nazionala.

# DOÑA MERCEDES

*Ondo pasa jaietan!*



**DOÑA MERCEDES MURUA**  
San Bartolome kalea, 29, behea  
**943 732 239**



**DOÑA MERCEDES**  
San Frantzisko kalea, 21, behea.  
**943 742 652**



**OBRADOREA**  
Zizillon Kalea 4, 1. solairua, 1.nabea  
**943 498 285**



[admin@donamercedes.es](mailto:admin@donamercedes.es)



[@dona\\_mercedes\\_obrador](https://www.instagram.com/dona_mercedes_obrador)



## estetikaalire

Upaiz zaharra, 1 behea - Elgoibar - **943 531 636**

### ABUZTUKO ORDUTEGIA:

- Asteartea 1 eta osteguna 3 - 09:30etatik 16:30etara
- Asteazkena 2 eta ostirala 4 - 09:30etatik 15:00etara
- Abuztuaren 7tik 11ra 9:30etatik 14:00etara
- ABUZTUAREN 14tik 28ra ITXITA

► Laser depilazioa, zerbitzu osoa IPL + DIODO (baita beltzarandutako azaletan ere).

► **Especialistak gara:**

- Aurpegia gaztetzeko tratamenduetan
- Azala zaintzeko aholkularitzan
- Gorputza findu eta gogortzean
- Goi mailako kosmetikan
- Depilazio elektrikoan (baita bekainak ere)



[#alireestetika](https://www.facebook.com/alireestetika)



[@alireestetika](https://www.instagram.com/alireestetika)

# G R E M I O N E N GIDA



**LEIHOAK**



**LODOSO  
LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223  
**lodosofj@gmail.com**  
**943 743 490**

**ITURGINTZA**



**PAGOAGA S.A.**

BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
 Pedro Migel Urruzuno, 8  
**943 740 512**  
 Faxa: 943 743 565  
 tienda@pagoagasas.com  
 www.pagoagasas.com

**BILTEGIA**  
 San Antolin, 13 - ELGOIBAR  
 taller@pagoagasas.com  
**943 740 279**

**AROZTEGIA**



**BIENA S.L.**  
**AROZTEGIA**

Ermuaranbide, 12-14-16  
 tel/fax. 943 743 116  
 www.biena.eus  
 info@biena.eus



**PINTURA**



**BIOK  
dekorazioa**

Uparitzaga, 14 - Elgoibar  
**943 741 552**  
**606 431 120**  
 biok@biokdekorazioa.com

**ITURGINTZA**



**SANTANA**  
 Igor Santana

**ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.**

Urazamdi kalea, 17, behea  
 Elgoibar  
**943 740 530 / 605 714 905**  
 santanaiturgingintza@gmail.com

**AROZTEGIA**



**iraolagoitia**

aroztegia - altzariak - eke-aldaketak  
 Kurutz-gain Industrialdea, 9  
 20850 Mendara  
**943 756 112**  
**636 497 485**  
 www.iraolagoitia.com

**ELEKTRIZITATEA**



**egoluz**  
 ELEKTRIZITATEA S.L.

**Andres: 630 957 345**  
**677 512 462**  
 Pedro Migel Urruzuno, 14 behea  
 20870 ELGOIBAR

Bulegoa: **943 200 697**  
 ego.luz@hotmail.com

**IZURRIEN KONTRAKO  
TRATAMENDUAK**

**PLAGANATURA**



Ondakuntza Sakal Ambiental

**618 198 760**  
 ivan@plaganatura.eus  
 www.plaganatura.eus

**AROZTEGIA**



**IMAR  
AROZTEGIA**

Olaso industrialdea, 17 behea  
**943 531 471**  
**609 054 978**  
 carpinteriaimar@hotmail.com  
 @carpinteria\_imar

**Gidan agertzearen onurak!**

**23,10€** hilan  
**12** aliz urtean  
**4.885** euro astero

22 Eren truke, hilerio, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian.

**BARREN** astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleho ikusiena.

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzeko.

**943 743 704**  
**688 769 657**

**barren.publi@elgoibarkoizarra.eus**

Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ez  
 20870 ELGOIBAR



Begiak arimaren ispilu omen dira  
Zaindu itzazu eta jar zaitez disdiragarri sanbartolomeetarako.

*Ondo pasa jaietan!*



1962tik gelak bizipenez betetzen

[www.elgoibarikastola.eus](http://www.elgoibarikastola.eus)

Elgoibar Ikastolak  
San Bartolome  
Jai  
zoriontsuak  
opa dizkizue!

 lizardi

INGENIERÍA  
DISEÑO  
CONTROL

*Ondo pasa jaixetan!*



# Jaiak aske

Berdintasunean, aske eta feminismotik bizitzeko jaiak antolatu ditu Maalako Jai Batzordeak. Gune Askean egitarau propioa izango dute, eta egongo da zer aukeratu. Aldarrikapena eta festa uztartuko dituzte sanbartolomeetan ere. Kontzertuak, erreka garbiketa, presoen eskubideen aldeko bazkaria eta bertso poteoa antolatu dituzte, besteak beste.

## ANDONI OLLOKIEGI

Kantaria

✍ Ainhoa Andonegi

Umetatik argi zeukan Andoni Ollokiegik (Pasai Donibane, 1992) musikari izan nahi zuela, eta gitarra jotzen hasi zen. Familiako bazkarietan eman zituen lehen musika saioak, eta halako batean, Lezoko jaietako herri bazkari batean jotzeko deitu zioten. Hura izan zen jendurrean eman zuen lehen kontzertua, eta une hartatik plazarik plaza dabil. Talde ezagunen bertsoiak egiten ditu, musika eta umorea uztartuz. Abestiak sortzea ere gustatzen zaio, eta aurreratu du bere disko propioa prestatzen ari dela. Abuztuaren 23an joko du Maalan, presoen eskubideen aldeko bazkariaren ondoren.



*“Publikoaren arabera erabakitzen dut saio bakoitzean zein abesti jo”*

**Abuztuaren 23an joko duzu Maalako parkean. Zer eskainiko duzu?**

Nire betiko show-a emango dut. Euskal abestien bertsoak joko ditut bereziki, umore pixka batekin uztartuta, eta nazioarteko abesti ezagunak ere bai. Ez dakit oraindik neu bakarrik joango naizen edo nirekin etorri ahal izango diren biolina eta teklatura jotzen dituzten bi lagun.

**Normalean bakarka aritzen zara, eta abesti sorta**

**zabala jotzen duzu. Nola prestatzen dituzu abesti horiek guztiak?**

Lehenengo denak entzuten ditut, behin baino gehiagotan. Musika aldetik akorde batzuk kanta guztietan errepikatzen dira, eta horiek intuizioz erraz ateratzen ditut. Letra ikastea izaten da gehien kostatzen zaidana.

**Nola hasi zinen musika munduan?**

Pasai Donibanera etortzen zen irakasle



batekin hasi nintzen, baina gero utzi egin zion etortzeari eta nire kabuz jarraitu nuen. Oso argi neukan musikari izan nahi nuela, eta senideen arteko bazkarietan hasi nintzen gitarra jo eta abesten. Lagun baten amak eskatu zidan Lezoko jaietako bazkaloste bat girotzeko, eta hura izan zen jendaurrean egin nuen lehenengo saioa. Poliki-poliki herri gehiagotatik deitzen hasi ziren, eta orain, topera nabil. Uda parte honetan ia egunero dauzkat kontzertuak. Ametsa bete dut, eta gaur gaurkoz, musikatik bizi naiz, baina ez dakit noiz arte iraungo dudan; badakit hau edozein momentutan bukatu daitekeela.

### **ETB-ko Bagoaz saioan ere hartu zenuen parte. Horrek ere emango zizun bultzada.**

Ez naiz talent show horrelakoetan parte hartu zalea, baina egiten nuena erakusteko modu egokia iruditu zitzaidan, eta horregatik eman nuen izena. Beatles taldearen *Hey Jude* abestia jo nuen casting-ean eta hartu ninduten. Nik uste dut banuela irabazteko aukera, baina saria *Goazen!* teleaileko aktore izatea zen, eta argi esan nien nik ez neukala aktore izateko interesik, baina uste dut lortu nuela nire burua ezagutzera ematea, programaren ostean dei gehiago jasotzen hasi nintzen-eta. Oso kuriozosa izan zen; programaren osteko lehen emanaldietara oso publiko gaztea etortzen zen.

### **Nola lortzen duzu publikoarekin konektatzea?**

Lehenengo publikoa nolakoa den ikusten dut, eta horren arabera erabakitzen dut saio bakoitzean zein abesti jo. Publikoak ere eskatzen ditu abestiak, eta saiatzen naiz haien eskaerei erantzuten. Tarteka, ni isildu eta beraiei abesten ere lagatzen diet, jendeari hori gustatzen zaio eta horrela disimulatzen dut batzuetan letra ahaztu zaidala!. Umore apur bat ere sartzen dut, eta gustatzen zait Shakiraren abestiren bat jo eta haren ahotsa imitatzea ere. Ez dakit ondo egiten dudan, baina niri gustatzen zait. Publikoa gertu sentitzea gustatzen zait.

### **Noizko zure disko propioa?**

Abestiak prestatu eta grabatzen ari naiz, baina ez daukat presarik. Gogotsu nago egia esanda, baina ez dakit funtzionatuko dutn. Bertsioek oso ondo funtzionatzen dute, baina besteen abestiak dira eta sortzaile moduan, badaukat nire kantak sortzeko eta kaleratzeko beharra ere. Iritsiko da, baina momentuz ez dago kaleratze datarik.

*"Bertsioek oso ondo funtzionatzen dute, baina besteen abestiak dira eta sortzaile gisa badaukat kanta propioak sortzeko eta kaleratzeko gogoia"*

## **EGITARAUA**

### **Abuztuak 22, martitzena**

#### ***Gaztetxian urteurrena***

**11:00** Erreka garbiketara.

**18:00** Kamiseta banaketa.

**19:00** Bertso poteoa, Julio Soto eta Joanes Illarregirekin.

### **Abuztuak 23, eguaztena**

#### ***Elkartasun Eguna***

**15:00** Presoen eskubideen aldeko herri bazkaria. Maalako parkean.

**Ondoren**, Andoni Ollokiegirekin kantaldia.

**19:00** Kontzertuak: La jodedera.

**01:30** Dj saioa.

### **Abuztuak 24, eguena**

#### ***Bartola Eguna***

**21:00** Larrain dantza herrikoia, Elgoibarko dultzaineroekin.

### **Abuztuak 25, barikua**

#### ***Txiki Eguna***

**20:00** Soinuz blai taldearekin erromeria.

### **Abuztuak 26, zapatua**

#### ***Baserritarren Eguna***

**20:00** Debrass Band, Gune Asketik hasita, kalean zehar.

**22:00** Kontzertua: Makis 37.

**23:30** Bad sound system.

### **Abuztuak 28, astelehena**

#### ***Gaztiak gera barren Eguna***

**14:00** Bazkaria, Sigmako aparkalekuan.

**17:00** Jolasak.

**18:30** Jolas-poteoa, Patxangoi elektrotxarangarekin.

**02:00** DJ La Fulana.

## GAIZKA URANGA

Bateria-jolea

✍ Ainhoa Andonegi / 🎧 Ane Galindo

Pandemia aurretxoan hasi zen Gaizka Uranga (Elgoibar, 2002) bateria jotzen, eta gaur gaurkoz hiru musika taldetan dihardu. Amildegi, Makis 37 eta Patxangoi. Gune Askean arituko da jaietan.

*“Elgoibarren denok ezagutzen dugu elkar, eta asko gustatzen zait herrian jotzea”*

### **Patxangoi elektrotzaranga da zure azken proiektua. Nola sortu duzue?**

La Roita erronkaren egunerako sortu genuen Patxangoi elektrotzaranga. Egun horretarako erromeria bat antolatu nahi zuten, eta ez zutenez talderik lortzen, esan ziguten ea zerbait egiteko moduan egongo ginatkeen. Gu beti gaude prest, eta berehala elkartu ginen Jezzy's Tyros taldekoak, Unai Arregi, Ander Torquemada eta ni. Berez egun horretarako sortu genuen, erromeria estiloko abestiak jotzeko, baina gero, Maalako Jai Batzordean arazo berbera izan genuen, ez genuela elektrotzarangarik lortzen jaietarako. Guk bageneukan elektrotzaranga sortzeko ideia bat, eta momentua aprobetxatu dugu. Sanbartolomeetan egingo dugu debuta, eta ilusio handia daukagu. Amaia Sasiain (ahotsa), Danel Legorburu (ahotsa), Markel Uranga (baxua), Aitor Asenjo (gitarra), Ruben Irigoien (bonboa), Unai Arregi (tronboia), Ander Torquemada (tronpeta) eta ni (kaja) gara taldekideak.

### **Neska baten izena entzun dugu aspaldiko partez! EME elkartean bueltan sortu diren taldeetan ez dago emakumerik.**

Bai, hala da, ez dakit zergatik. Amaia Sasiain gogotsu zegoen eta taldeko abeslarietako bat izango da. EMERen bueltan uste dut neska



talde bat sartuko dela orain, baina bai, gutxi ikusten dira.

### **Makis 37 taldearekin ere arituko zara Gune Askean.**

Bai, Ermuan entseatzen dugu. Julen Gutierrez (gitarra eta ahotsa) eta Alex Gonzalez (gitarra) ermuarak dira, eta Miguel Beraza (baxua) eta ni elgoibartarrak. *Malakoaren distira* diskoa atera dugu, eta oso pozik gaude. Euskarazko eta gaztelarazko zazpi abesti sortu ditugu, guri gustatzen zaigun estiloan. Rock eta punk rock estiloa lantzen ditugu batez ere, baina gure estiloa nahiko nahasia da. Kazetari batek musika inteligentea egiten dugula esan zigun. Gustatu zitzaigun definizioa. Kontzertuetan bertsoiak ere jotzen ditugu. Nahi duenak Derry tabernan erosi dezake gure diskoa. Oso pozik gaude Elgoibarren jotzeko. Hemen denok ezagutzen dugu elkar, eta asko gustatzen zait herrian jotzea.

### **Bateria jotzen duzu zuk. Noiz eta nola hasi zinen?**

Lagun artean hasi ginen kantu batzuk joteko elkartzan, eta gustua hartu nion. Bateria elektroniko bat erosi nuen etxean jotzeko, eta pandemiagatik etxeratu gintuztenean jo eta jo ibili nintzen; ezin zen besterik egin! Dena nire kabuz ikasi dut azken lau urteetan. Pandemia ostean bigarren eskuko bateria bat erosi nuen, eta Gaztetxean hasi ginen entseatzen. EMERen lokaletan sartu ginen gero, eta gure lehen taldea sortu genuen: Garaikide. Azpitiko lagun pare bat ere bazeuden talde hartan, eta haiek laga zutenean sartu ziren beste batzuk, eta orain, Amildegi Gara.

## La Jodedera Abuztuak 23, 19:00

2009. urtean sortuta, Kubako musikariek eta euskaldunek osatzen dute taldea: Jon Txorromorro (gitarra jotzailea eta kantaria), Jomes Bap (baxu jotzailea), Mandi Cienfuegos (perkusionista eta kantaria) eta Oscar La Habana (tres kubatarraz arduratzen dena). Alderdi aldarrikatzailea baztertu gabe, musika sortzeko eta jendeak ondo pasatzeko eta dantza egiteko helburuarekin sortu zuten taldea. 2013an atera zuten lehen diskoa *Karibe Kantauri* izenarekin, eta urtebete geroago kaleratu zuten bigarrena, *Aio Kurrilo* izenekoa.



## Soinuz blai Abuztuak 25, 20:00

Euskal musika eta erromeriarekiko zaletasuna ardatz harturik, elkar ezagutzen zuten gazte batzuk elkartu ziren 2017an Getarian, eta Soinuz Blai taldea sortu zuten. Pandemiaren geroztik, taldekide berri batzuen laguntzarekin, indarberriturik itzuli dira, Euskal Herriko plazak alaitzera.



## Debrass Band Abuztuak 26, 20:00



Debrass Band taldea 2018an sortu zuten, Deban. Musika talde instrumentala da, eta musika estiloari dagokionez, funky, soul eta techno musika egiten dute, bereziki.

## Bad sound system Abuztuak 26, 23:30



2003. urtean Irunen sortutako musika taldea da. Reggae, Dancehall eta Ragga estiloak lantzen ditu, besteen tartean. Haien egungo kideak Selektah Stepi (DJ), Masta (MC) eta Kenitra (MC) dira, nahiz eta lehenago Brujo (MC) eta DjSucio (DJ) ere taldeko kide izan ziren. Ezagunak dira Elgoibarren, iaz ere jo baitzuten Gune Askean.

## DJ La Fulana Abuztuak 28, 02:00

Donostiarra da DJ La fulana, eta duela urte erdi inguru hasi zen lanbide honetan. Denetariko musika jartzen du bere emanaldietan, eta uste du estilo desberdinetako musika egon behar dela euskal herrietako jai guneetan: reggaetoi, dance hall edo traparekiko dagoen estigma apurtu behar dela defendatzen du eta gorputz disidenteak ere aldarrikatu behar direla.



# DANTZAK HARTU DU ELGOIBAR

✍ Ainhoa Andonegi / 📷 Asier Orbea

Joan zen asteburuan dantza izan genuen protagonista Elgoibarren: Barikuan Haritz dantza taldeak antolatzen duen Nazioarteko Folklore Jaialdiarekin izan zuten hitzordua herritarrek. Maalako parkean izan zen jaialdia, eta Elgoibarko dantzariekin batera, Errumaniakoak eta Mexikokoak igo ziren oholtzara. Gau koloretsua izan zen, eta kultura desberdinetako dantzak ikusteko aukera izan zuten bertaratu zirenek. Zapatuan, berriz, Verdini dantza taldearen txanda izan zen. 'Iluntasunetik Argira' dokumentala eman zuten lehenengo dantza taldearen nondik norakoak ezagutzeko, eta segidan, dantzaldia eskaini zuten. Aniztasun funtzionala duten dantzariak osatzen dute Verdini, eta haientzat espazio eta eskubideak aldarrikatzen dituzte, dantzaren bidez. Emozioz beteriko gaua izan zen. Argazki gehiago: [barren.eus](http://barren.eus)





INDUSTRY  
LANGUAGE  
SERVICES



CAMPUS

**Azken plazak!  
Matrikula zaitez!**

**INGELESA  
FRANTSESA  
ALEMANA**

**IRAILETIK HASITA  
2023-2024 KURTZOKO IKASTAROAK**

Maila guztiak.

Titulu ofizialak.

Esperientzia duten jatorrizko irakasleak.

Ikastaroak atzerrian.

Multimedia gela.

Haurrak eta gazteak 4 urtetik aurrera.

**ENPRESA ITZULPEN ETA  
INTERPRETazio ZERBITZUAK**

**TALDE BERRIA!**

**LH 5**



Astelehenetan eta asteazkenetan

**17:00-18:00**



www.ils.es



688 679356



943 744040



ils@imh.eus

INDUSTRY  
LANGUAGE  
SERVICES



**10%**  
DESKONTUA  
ANAI-ARREBAK

**jai alai**



kutxabank



## Kirol eskaintza oparoa jaietan

**T**xarangaren atzetik ibiltzea bera nahikoa kirol den arren, kirol ekitaldi ofizialez gainezka datoz aurtengo sanbartolomeak ere: fubola, txirrindularitza, pilota, herri-kirolak... kirolzaleak asetzeko adina kirol ageri da egitarauan.

Hasteko, Futbol Txupinazoa izango da Mintxetan, abuztuaren 22an, 18:30ean. Haundi gizonezkoen taldeak Zumaiaiko izango du aurkari txapelketaren aurkezpena egin ostean jokatuko duten neurketan. Abuztuaren 29an, bestalde, Haundi emakumezkoek Liga Nazionalean diharduen Arratia taldea izango dute aurkari. 18:30ean. izango da partida.

San Bartolome Bezpera Eguna ere kirol ekitaldi batekin hasiko da, 23 urtez azpiko afizionatu mailako txirrindularientzako Etxaniz Memorialarekin, hain zuzen ere. Gure Bide Txirrindulari Elkarteak antolatzen duen lasterketaren 76. ekitaldia 09:00etan hasiko da, Kalegoen plazatik, eta 12:00ak inguruan amaitzea aurreikusten dute. Pedro Migel Urruzuno kalean egongo da helmuga. Antolatzaileek boluntarioak eskatu dituzte bidegurutzeak zaintzeko eta proba antolatu ahal izateko. Prest daudenek honako telefono zenbakira deitu behar dute: 627 760 248. Jaietan errotuta dagoen beste kirol ekitaldi bat jokatuko dute Baserritarren Egunean, abuztuaren 26an: Mintxeta MemorialaHarri-Jasotze Txapelketa. Azken urteetan moduan, Mintxeta (124,6) eta Belaustegi (145,4 kilo) harri irregularrak jaso beharko dituzte parte hartzaileek, bost minutuko saioetan. Kalegoen plazan jokatuko dute Kalamua Elkarteak antolatzen duen txapelketa.

Herri kirolek Gazteen Egunean izango dute segida, Herri Kirolen II. Triatloi Txapelketarekin. Aita Agirre plazan izango da, 19:00etan. Iaz, estreinako edizioan, hiru emakumez osatutako lau talde lehiatu ziren, lurraldeka, eta Bizkaiko herri kirolariak gailendu ziren.





# PUNTA-PUNTAKO PILOTA JAIALDIAK SANBARTOLOMEETAN

Abuztuaren 24an eta 25ean jokatuko dituzte pilota partidak sanbartolomeetan, eta urtero bezala, pilotari handiak etorriko dira. Horrez gain, San Bartolome Eguneko pilota jaialdia beste berezitasun bat ere izango du, izan ere, urteetan Lagunak Pilota Eskolan ibili den Antonio Azpiazuri omenaldia egingo diote.

Ainhoa Andonegi

**P**ilotak bere lekua dauka sanbartolomeetan, eta aurten ere ez da faltako. Uda sasoi honetan ohikoak izaten dira pilota jaialdia Euskal Herriko jaietan, eta Elgoibarren ere bi egunetarako iragarri dituzte profesionalen arteko pilota partidak. Abuztuaren 24an eta 25ean izango dira. San Bartolome Eguneko jaialdia Aspe pilota enpresak antolatuko du, eta Txiki Egunekoa, berriz, Baiko enpresak.

## SARRERAK SALGAI

Pilota jaialdietarako sarrerek joan zen barikuan jarri zituzten salgai. Kaia tabernan edo [entradasfronton.com](http://entradasfronton.com) webgunean eskuratu daitezke aurrez, eta partida egunean bertan frontoian ere jarriko dituzte salgai, aurrez amaitzen ez badira.

## ABUZTUAK 24

Jaialdiko lehenengo partida:

- Dario-Bikuña
- Etxeberria- Erostarbe

Jaialdiko partida nagusia:

- Ezkurdia-Zabaleta
- Altuna III.a-Martija

## ABUZTUAK 25

Jaialdiko lehenengo partida

- Alberdi II.a -Ugartemendia
- Zubizarreta-Elizegi

Jaialdiko partida nagusia

- Jaka-Albisu
- Artola-Mariezcurrera



## ANTONIO AZPIAZU

### LAGUNAK PILOTA ESKOLAKO BOLUNTARIOA

San Bartolome Eguneko pilota jaialdian omenaldia egingo diote Antonio Azpiazuri, hainbat eta hainbat urtetan Lagunak Pilota Eskolari egin dion ekarpenagatik.

### Omenaldia egingo dizute San Bartolome Egunean, Lagunak Pilota Eskolan egindako lana eskertzeko. Nola hartu duzu?

Ez dakit ba zer esan! Pozik, eta aldi berean urduri. Sentimendu asko batu zaizkit. Baina bueno, beti da pozgarria norberarekin akordatzea. Normalean ni izaten naiz sariak ematen dituen eta orain jasotzea tokatuko zait. Ez nago horretara ohituta eta uste dut errazagoa izaten dela ematea jasotzea baino.

### Nola iritsi zinen Lagunak Pilota Eskolara?

Semearengatik hasi nintzen, batez ere. 7 urte zituela hasi zen semea pilotan, eta orduan ere jendea behar izaten zen umeak entrenatzeko, partidetara eramateko... Aurretik ere hasita nengoen taldean pixkat laguntzen, baina semea pilotan hasi zenean gehiago inplikatu nintzen. Semeak gero ukondoko lesio bat izan zuen, eta pilota laga behar izan zuen, baina nik taldean jarraitu nuen, gaur arte. Badirudi orain laga egin beharko dudala. Nire etapa omenaldi honekin amaituko da.

### Zein egoeratan dago gaur egun Lagunak Pilota Eskola?

Aitor Bergua dabil azkenaldian pilota eskolaren arduradun, eta fenomeno bat da. Oso ondo egiten ditu gauzak, eta hari esker jarraitzen du aurrera eskolak. Pilotan oso ondo egiten duten bi seme dauzka, eta lan handia egiten ari da herrian pilota mantentzeko. Baina ez dauka lan makala. Pilotazaleak badaude herrian, eta gazteei ere gustatzen zaie pilota, baina batez ere telebistaz ikustea edo frontoira joatea gustatzen zaie. Pilota kirol moduan gogorra da, eta gazteei gehiago gustatzen zaizkie taldeko kirolak.



Eskubaloiarekin eta futbolarekin lehiatzea oso zaila dauka pilotak. Umetan batzuk probatzen dute, baina gehienek laga egiten dute gero.

### Besterik gehitu nahiko zenuke?

Eskerrak eman nahi dizkiot Aitor Berguari egiten ari den guztiagatik. Askok balio du eta oso ondo ari da. Horrez gain Udala Kirol Patronatuari eta, bereziki, Ramon Mujikari ere eskerrak eman nahi dizkiot, beti alban izan dugulako eta Pilota Eskolatik laguntza eskatu izan diogunean beti eman digulako.

# ELKARTASUNA ETA JAIA ESKUTIK

✍️👤 Ainara Argoitia

Jendetza handia ibili zen Mendaron garagardo azoka solidarioak iraun zuen lau egunetan, batez ere bazkaltzen eta afaltzen. Uztailaren 13an zabaldu zuten azoka bularreko minbizi metastasikoa ikertzen ari diren ikertzaileen eta elkarteetako ordezkarien arteko solasaldiarekin, eta hamaika ekintza egin ziren lau egunez, plaza inguruan. Partehartzeaz oso balorazio positiboa egin dute antolatzaileek, baina diru kontuak ixtean egingo dute azken balorazioa. Argazki gehiago ikusteko: [barren.eus](http://barren.eus)





Revent  
Eibarbus  
**grupoJonAnder**  
www.grupojonander.com



Ondo pasa jaietan!

jonander@jonander.com - eibarbus@eibarbus.com

**943 201 733**

**ESARRI AUTOAK** ZERBITZUA  
MARKA GUZTIAK

**943 741 480**  
Aitor: 606 975 730  
Anton: 680 356 573  
Faxa: 943 031 576 Olaso, 17 - Elgoibar



**SURYA**  
BELAR-DENDA

Norberaren zaintza,  
denon eskura!

943 742 534 630 878 054

surya-belardenda@hotmail.com  
San Frantzisko, 23 - Elgoibar




Mekanizazio lanak



Fabrikazio gehigarria



**BM**  
bronymec

Termoplastiko eta  
konpositeetan adituak



**ASKETA S.L.**  
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA  
SERVICIO INTEGRAL DE OBRAS

943 191 952

Ondo pasa jaietan!!!



AGURTZANE  
c.b.  
ileapaindegia

Abuztuko ordutegia  
08:00etatik-15:00etara.  
Abuztuan 14tik 20ra  
itxita.

**ONDO PASA  
JAIETAN!**

Santa Ana, 18 - Elgoibar  
**943 741 864**



**GABILONDO**  
INMOBILIARIA Y URBANISMO

**Edurne Gabilondo Loyola**

Zuzenbidean litzentziatua  
Higiezin jabetzako agentea  
Higiezin sektoreko peritu ofiziala

[www.inmobiliariagabilondo.es](http://www.inmobiliariagabilondo.es)  
San Frantzisko 51, behea - Elgoibar  
**943 744 467**

**ONDO PASA JAIETAN!**



**urkotronik**

URKOTRONIK VENDING S.L. 943 20 31 12 [urkotronik@urkotronik.com](mailto:urkotronik@urkotronik.com)



# SANTANAK BEGIRATU BATEAN

✍ Ainhoa Andonegi / 📷 Ainara Argoitia

Bete beteak etorri dira Mendaroko Santanak aurten, baina hasiera orok izaten du bere bukaera, eta Santanak ere amaitu dira. Bost egunetako jaiak izan dira, eta jaiak iraun duten bitartean ez da atsedunik egon. Adin eta gustu guztietako herritarrentzako ekintzak izan dira aurtengo egitarauan, eta denek izan dute euren tartea. Gazteek eurek ere, eurentzako propio prestatutako eguna izan dute, ume eta helduek bezalaxe. Kuadrilla Egunak, bestalde, denak batu zituen, eta *Jaixetan enixe etxea* lemapean, koloretan ospatu zuten eguna. Herritarrez gain, kanpoko jende asko ibili da aurtengo jaietan, bereziki, Puro Relajo, Gozategi eta Bulego taldeen kontzertuetan. Jaiak, oro har, giro eta umore onean joan dira, eta **BARRENEKO** kamera han eta hemen ibili da jaietako unerik garrantzitsuenak jasotzeko. Pilota partidak, paella lehiaketa, erraldoiak, danborrada... Orriotan jaso ditugu santanetako argazkiak, begiratu batean jaiak errepassoa egiteko. Argazki gehiago: [barren.eus](http://barren.eus)







**IRIONDO**

[www.iriondo.com](http://www.iriondo.com)







Mendaroko  
Haurreskola

Garaartza, 5  
943 755 219



Haurrekolak

Irailetik aurrera  
haurreskola DOAN!







# Gora Santanak!

ehbildu  
MENDARO

TAXI

Kontxi Urain  
MENDARO

Aeroportura  
joan-etorriak!

Mobila:  
607 575 728



orrasakillo  
943 033 631  
23/24  
eskola kanpaina  
martxan!  
Abuztuko ordutegia:  
8:00-13:00

## EGUNEKO ZENTROA ZUREKIN S.L.



Azpilgoeta, 32  
20850 Mendaro  
Tel.: 943 031 746  
e-posta: zurekin@euskalnet.net

## 29 ZAPATUA

### Azken zapatuko feria

**09:00** Elgoibarko baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai. ArTalde artisau taldekoen postuak ere egongo dira.

**Eguerditik aurrera**, ganadu erakusketa Kalebarren plazan.

### Aire libreko zinea (Kalegoen plazan)



#### 'Un pequeño plan... Cómo salvar el planeta'

28 barikua: 22:30



#### 'Minúsculos: El valle de las hormigas'

29 zapatua: 22:30

**Botika ordutegiak:** 09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK:

Egunez: 09:00-22:00 ■ Larunbatak: 09:00-14:00

OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

### UZTAILA

28 BARIKUA Barrenetxea  
29 ZAPATUA ■ Oruesagasti ■ Barrenetxea  
30 DOMEKA ■ Oruesagasti  
31 ASTELEHENA Arriola

### ABUZTUA

1 MARTITZENA ■ Ibañez  
2 EGUAZTENA Barrenetxea  
3 EGUENA Arriola  
4 BARIKUA ■ Fernandez  
5 ZAPATUA Arriola  
6 DOMEKA Arriola  
7 ASTELEHENA ■ Oruesagasti  
8 MARTITZENA Barrenetxea  
9 EGUAZTENA ■ Ibañez  
10 EGUENA Barrenetxea  
11 BARIKUA Arriola  
12 ZAPATUA ■ Fernandez ■ Barrenetxea  
13 DOMEKA ■ Fernandez  
14 ASTELEHENA Arriola  
15 MARTITZENA ■ Fernandez  
16 EGUAZTENA Garitaonandia  
17 EGUENA ■ Ibañez  
18 BARIKUA Garitaonandia  
19 ZAPATUA Yudego  
20 DOMEKA Yudego  
21 ASTELEHENA ■ Fernandez  
22 MARTITZENA Yudego  
23 EGUAZTENA ■ Oruesagasti  
24 EGUENA Garitaonandia  
25 BARIKUA ■ Ibañez  
26 ZAPATUA Garitaonandia  
27 DOMEKA Garitaonandia  
28 ASTELEHENA Yudego  
29 MARTITZENA ■ Fernandez  
30 EGUAZTENA Yudego  
31 EGUENA ■ Oruesagasti

### IRAILA

1 BARIKUA Yudego

■ Fernandez:  
Herriko enparantza,4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

■ Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

■ Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**AZKUEKO JAIAK****UZTAILAK 28, BARIKUA.....****17:00** Txapliguak eta kanpai jotzea.**18:00** Umeentzako jolasak.**Ondoren**, zezentxo eta poniak.**21:00** Afaria.**Ondoren**, DJ Arno.**UZTAILAK 29, ZAPATUA.....****10:30** Txapliguak eta kanpai jotzea.**11:00** Salda eta txorizoa.**Ondoren**, toka eta txapel jaurtiketa lehiaketak.**17:30** Txokolatada.**21:00** Afaria.**00:00** Bolo txapelketa.**Ondoren**, erromeria.**ABUZTUAK 16, EGUAZTENA.....****San Roke Eguna**

Meza, Azkueko ermitan. Salda eta txorizoa ere banatuko dituzte.

**SALLOBENTE-ERMUARANGO JAIAK****ABUZTUAK 5, ZAPATUA.....****11:45** Txapliguak, jaiei hasiera emateko.**12:00** Meza.**Jarraian eta egunean zehar**, Naiara eta Lanberri trikitaliak.**14:00** Bakailao jana, bereziki, auzoko aiton-amonentzat, eta bestelako bazkariak bertaratzen direnentzat.**16:00** Umeentzako jolasak.**18:00** Niala magoaren ikuskizuna.**Jarraian**, txokolatada.**20:00** Emakumezkoen Bolo Txapelketa.**Afalostean**, Niala magoa, karpan zehar.**23:00** Erromeria, Fan&Go taldearekin.**00:00** Bolo txapelketa.

\* Maalatik Sallobenterako autobus zerbitzua egongo da egun osoan zehar, 11:30etik goizaldeko 05:00ak aldera arte.

**ABUZTUAK 10, EGUENA.....****San Lorentzo Eguna****11:00** Prozesioa eta meza nagusia.**Ondoren**, salda eta txorizoa.**SANTUMOTZ EGUNA****ABUZTUAK 6, DOMEKA.....****11:00** Hitzaren liturgia, Santumotzeko zelaian.**Gero**, Armueta harategiak eskainitako salda eta txorizoa banatuko dituzte.**12:00** Herri kirolen erakustaldia.**Jarraian**, Mendiluze eta Peñagarikano bertsolariak.**Tarteka**, Ansorregi eta Larrañaga soinu-joleak.**Ekitaldiaren amaieran**, Maite Gourmet-ek eskainitako urdaiazpikoa zozkatuko dute.**14:30** Lagunarteko bazkaria San Pedro jatetxean. (30 euro).

Izena emateko: 638 238 088.

**Egun guztian zehar**, soinu-joleek eta bertsolariek alaituko dute jaia.**SAN ANTOLIN JAIAK****ABUZTUAK 31, EGUENA.....****18:30** Zuhaitz sartzea.**1 BARIKUA****18:30** Txapel eta oliba hezur jaurtiketa.**20:30** Bertso kalejira.**21:00** Bertso afaria Iker Zubeldia, Julio Soto eta Agin Labururekin.**IRAILAK 2, ZAPATUA.....****11:00** Meza. Segidan, salda eta txorizoa banatuko dituzte.**14:00** Auzotarrentzako bazkaria.**16:30** Mus txapelketa eta umeentzako merienda.**17:00** Umeentzako jolasak.**18:00** Tortilla txapelketa.**19:00** Herri kirolak: Paulo Azpiazu, Lur Errekondo eta Jakes Iruretagoiena. Ondoren, txinga eramate parte-hartzailea sariarekin.**21:00** Afaria, Euskal Parrillaren eskutik.**23:00** Andonegi eta Astiazaranekin erromeria.**01:00** Txokolatada eta errifaren zozketa

1. saria: Kanariar Uharteetarako bidaiak
2. saria: Janariz eta edariz beteriko eskorga.



Aste honetako erretratu zaharra Ales Sasiainen argazki artxibokoa da. 1986ko sanbartolomeetan aterata dago, Txiki Egunean, hain zuzen ere. Errosario kalean ateratakoa da argazkia, Mauxitxa txarangaren kalejiran. Jakina da Errosario kalekoa apoteosikoa izaten dela Txiki Egunean. Herritar pila bat biltzen da kale horretan Mauxitxaren erritmora salto eta dantza egiteko, eta hango bizilagunei ura eskatzen diete, gainean daramaten ardo usaina eta berotasuna apaltzeko. Argazkiko une honetan *Altxa Felipe* abestia jotzen ari da Mauxitxa, eta herritar bat lagunek nola altxatzen duten airera ikus daiteke, abestiko Felipe balitz moduan. Aurpegi ezagunak ikusten dira jende artean, baina Ales Sasiarek izen bat nabarmendu du: Abel Iriondo. Herritar hori altxatzen dihardutenen artean ikus daiteke bizkarrez Haritz dantza taldeko kide ohia. 2021eko abuztuan hil zen.





## Sebas Etxaniz Alkorta

2023ko uztailaren 23an hil zen, 79 urte zituela.



**Askatasunaren haizeak  
ez du mugarik.**



## Miren Ansorregi Aranberri

2023ko uztailaren 16an hil zen, 89 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## Jesus Maria Juaristi San Martin

2023ko uztailaren 17an hil zen, 79 urte zituela.

**Ez agurrik, ez adiorik; gero arte bakarrik.**



## Joaquin Garcia Viso

2023ko uztailaren 22an hil zen, 96 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





**Jai**  
zoriontsuak!

